

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 8a / 710. zenbakia

TEKNOLOGIA BERRIAK/ Interneteko banda zabala hedatzeko mikrouhinen sistema

Internet iristen ez den lekuetan Internet zerbitzua eskuratzeko beste aukera bat

UBANE MADERA

Kable bako Internet zerbitzua bultzatzeko hitzarmena sinatu dute Kelnara eta Goiena enpresek. Horren bitartez, Internet iristen ez den leku askotan Internet erabiltzeko aukera izango dute orain. Murun ipinitako antena bat erabiliko dute horretarako.

Hemen inguruko leku gehienetan, kablea erabiltzen dute Internet eskuratzeko. Baina leku edo bizilagun askok ezin dute hori egin, kablea ez delako behar den tokiraino iristen (ibarreko baserri asko daude egoera horretan). Hala, bada beste sistema bat, kable bakoa. Kasu horretan, mikrouhinen bitartez bideratzen dute seinalea. Eta kablea iristen ez den leku askotara iristea lortzen dute mikrouhinek.

KELNARA ETA GOIENA.NET

Gauzak horrela, bide hori aprobetxatu eta Internet eta telefonia finkoa eskuratzeko aukera eskaintzen du gure ibarrean Arrasateko Kelnara enpresak. Hain zuzen ere, hori bideratzeko hitzarmena sinatu du oraingo astean Goiena.net-ekin. Horri esker, orain arte zerbitzu horiek eskuratu ezin zituzten Arrasateko, Aretxabaletako, Aramaioko, Eskoriatzako eta Gatzagako auzo eta baserri askok izango dute Internet banda zabalaren bitartez lortzeko aukera. Bi baldintza besterik ez dira bete behar: Internetera konektatzea nahi duen eraikinean panel bat ipintzea (A4 tamainakoa), eta panel hori Muru mendira begira egotea. Arrasateko Elkoro eta Micro's enpresak arduratzen dira panelak ipintzeaz. Eta eskaera egin eta berehala ipintzen dute.

Goienak, berriz, hitzarmen horren bidez lortuko duena da sarearen bitartez bideratzen duten informazioa modu errazago eta bizkorragoan helaraztea, eta kablea iristen ez den lekuetara iristea. "Goienak sarean dituen euskarazko edukiak (Goiena.net, Sustatu.com, blogak...) erosoago helduko dira. Kableak ez, baina Internet-uhinek sahat



Kelnara enpresaren izenean Joakin Sarri kudeatzaileak sinatu zuen hitzarmena; Goiena.net-en izenean, berriz, Goienako telematikako arduradun Iban Arantzaabalek.

usaina izango dute. Helduko da sarea ukuiluetaraino. Garrantzitsua da Leintzeko auzogunee-takoek ere nabigazio bizkorraz gozatu ahal izatea". Esan du Goienako Iban Arantzaabalek.

ABANTAILA HANDIAK

Zerbitzu horren kostua 19 euro eta 95 euro artekoa izango da; Kel-

*"Internet-uhinek
sahats usaina
izango dute.
Helduko da sarea
ukuiluetaraino"*

nara enpresako kudeatzaile Joakin Sarriak azaldu digunez, "erabiltzaileak eskuratzen duen kontratuaren arabera".

Zerbitzuaren ezaugarri nabarmenenak, berriz, honako hauek dira: 1,5 megako abiada erabiltzen du (ohikoa baino hiru bider bizkorragoa); abiada bera erabiltzen du gauzak bidaltzeko

eta jasotzeko (abiada simetrikoa du) eta konexioa ez du sekula galtzen, "nahiz eta ekaitza, izotza, elurtea... izan, berdin funtzionatzen du, ez da eta wi-fi sistema", hala azaldu digu Kelnarako kudeatzaileak.

Kelnarak dagoeneko baditu sistema hori erabiltzen duten bezeroak gure ibarrean: "Arizmendi Ikastola, AZBE enpresa, Garaia...". Etorkizunera begira, gainera, eta eskaintzen duen sistemaren erraztasuna eta eraginkortasuna kontuan hartuta, dezente erabiltzaile gehiago lortzea espero dute. Eta bide bera jarraituz gero, Durango aldera edo Gasteiz ingurura hedatzeko aukera aztertuko dute.

Kelnarak aLO Comunicaciones enpresarekin lan egiten du. Hain zuzen ere, Kelnarak egiten duena da sistema berria instalatu. Gero, haien mantenuaz aLO Comunicaciones arduratzen da.

Internet erabiltzeko aukera izango lukete:

Arrasaten: Udala, Bedoña, Garagartza eta Gesalibar auzoetako bizilagunek.

Aretxabaletan: Aozaratza, Oro, Larriño, Izurieta, Galartza, Apotzaga, Arkaratz eta Arenaza auzoetako bizilagunek.

Eskoriatzan: Mendiola, Bolibar eta Gellaokok bizilagunek.

Gatzagan, herritarrek.

Eta Aramaion: Untzilla, Azkoaga, Barajuen, Gureia, Zabola, Arexola, Etxaguen eta Gatzagako bizilagunek.

Zerbitzuaren ezaugarriak: konektatu nahi duen eraikinean panel bat ipini behar da, Muru antenari begira; izan ere, ez da wi-fi sistema, kable bakoa baizik. Prezioak eskaintzaren arabera dira: 19 eurotik hasi eta 95 euroraino.

Zerbitzua kontratatuta gura duenak honako bidea erabili behar du: 943 79 81 91 telefonora deitu (fax zenbakia: 943 79 57 05) edo kelnara@alocom.net helbidera idatzi. Berehala ipintzen dute.



Etxeak, kaleak, terrazak, kale-argiak, lorategiak... auzoko ia elementu guztiak berrituko dituzte Makatzenan.

OSOKO BILKURA/ Makatzena eta alde zaharra

Makatzena eraberritzeko hitzarmena lortu dute

UBANE MADERA

Makatzena auzoa eraberritzeko hitzarmena onartu eta alde zaharrean dauden behe-barruek bete beharreko baldintzak zehaztu zituen, besteak beste, udalbatzarrak astlehenean. Osoko bilkura bi egin zituzten zinegotziek, bata ohikoa eta bestea berezia.

Makatzenaren gaineko hitzarmena Udalak eta, auzotarren izenean, Grupo Makatzenak egin zuten. Haren arabera, auzoa goitik behera eraberrituko dute. Gune publikoetan zein pribatuetan egingo dituzte lanak. Hala, gune publikoko lanendako 1.441.610,93 euroko aurrekontua zehaztu dute. Izartu egitasmoaren bitartez finantzatuko ditu Udalak lanak. Gune pribatuan, berriz, 939.697,51 euroko aurrekontua zehaztu dute.

Lanak egiteko zortzi bat hila-beteko epea aurreikusi dute.

GARAJEAK ETA PARKINGA

Etxebizitzak konpondu egingo dituzte, lokalak egokitu garaje moduan erabiltzeko, eta arkupeetako gune batzuk trasteleku izateko moldatuko dituzte. Era berean, garaje gehiago egiteko asmoa dute, auzoaren atzeko aldean, mendiari zatia kenduta. Eta lurrazpiko aparkalekua ere bai, jolas-parkearen azpiko aldean.

ZOLADURA, ARGITERIA ETA TERRAZAK

Lan handiagoak aipatuz gero, aurreproiektuaren arabera, auzo-

aren zoladura berritu egingo dute, argiteria berria ipini, lorategiak egingo dituzte eta terrazak konpondu egingo dituzte. Etxebizitzaren hegalei dagokienez, berriz, haiek ere konponduko dituzte, zolatu egingo dituzte eta kalean argi berriak ipiniko dituzte. Gainera, haien azpiko aparkalekua ere berritu egingo dute.

Bestalde, autobus geralekua-ren markesina Makatzena kalearen sarreran kokatuko dute, Obenerreka errekastotik gertu.

ESKAILERA MEKANIKOAK

Era berean, auzoko kableak-eta, gaur egun airetik doazenak lurperatu egingo dituzte (telefonía

eta argindar hariak). Eta besteak beste, Hondarribia eta Makatzena kaleak lotzeko eskailera mekanikoak egiteko asmoa dute. Hain zuzen ere, Hondarribiatik Makatzenaren beheko alderaino iritsiko lirakeke eskailerak, pilotalekuaren ondoan dagoen etxeraino. Horrez gainera, auzoan dauden gainerako eskailerak ere berritu egingo dituzte.

ALDAKETAK EGON DAITEZKE

Dena dela, Udaletik jakinarazi digutenez, esandako guztia aurreproiektua da. Horrek esan gura du aldaketak egin ditzaketela oraindik.

ALDE ZAHARREKO BEHE-BARRUAK

Gai horrez gainera, bestelakoak ere landu zituen udalbatzarrak osoko bilkuran. Tartean, alde zaharreko behe-barruekin lotutako puntu bat ere bazen. Kontua da, orain, aldatu egin dutela behe-barru horiek bete behar dituzten baldintzen gaineko araudia. Eta horrek eragina izango duela alde zaharrean saltokiren bat edo negozioren bat dutenengan. Izan ere, baldintza berriek, adibidez, saltokien erakusleihen ezaugarriak ezartzen dituzte (garaiera, zabalera, argiztapena...). Horrekin batera, Maalako errebaleko zenbait etxebizitzaren (Mondragones kalera begira daudenak) lerrokadurarekin lotutako erabakiak ere hartu zituen udalbatzarrak astlehenean. Hango bizilagunengan eragina izango dute erabaki horiek.

Etxebizitzak eta haien hegalek konpondu egingo dituzte eta garaje berriak eraiki

Alde zaharreko saltokiek bete beharreko baldintzak aldatu egingo dituzte



Arrasateko
euskalgintza



Kubatik etorritako zenbaitek ere badaki euskaraz

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Euskara ikasi duen pertsona baten esperientzia kontatuko dugu segidan. Etorrina da bera, eta kontatu digu ahalegin berezia egin behar izan zuela euskara ikasteko. Hori bai, orain gure hizkuntza erabil dezake, eta integratua sentitzen du bere burua.

“Kuban jaio nintzen 1965ean; nire haurtzarora hantxe pasatu nuen, Kuban alegia. Nire ama-hizkuntza gaztelera da, noski, baina ez hemen hitz egiten den bera, han beste esamolde eta egitura batzuk erabiltzen ditugu-eta.

Nire lehenengo ikasketak Habana Hirian dagoen Playa udalerriko Menelao Mora lehen hezkuntzako ikastetxean egin nituen. Hura amaitzean, Ciudad Libertad deituriko ikastetxera pasatu nintzen, oinarriko bigarren hezkuntza egitera. Ondoren, goi mailako ikasketek ekin nien: Haur Hezkuntzako Hezitzaile ikasketak egin nituen. Ikasketak amaituta, nire bizitza profesionalaren hasiera etorri zen. Haur hezkuntzako zentroetan ibili nintzen lanean.

1993an, gaur egun nire bikote eta lagun denarekin etorri nintzen Euskal Herrira bizitzera. Hona heldu nintzeneko banekien hemen gaztelera

gainera beste hizkuntza batekin egingo nuela topo, euskarekin alegia. Hasiera-hasieratik izan dut interesa euskara ikasteko, izan ere, hemen igaro nahi nuke nire bizitza (botatzen ez banauzue behintzat). Bestalde, oso interesgarria iruditzen zait zuen hizkuntza eta kultura gordetzeko egiten duzuen ahalegina. Hasieran baina, ez zen erraza izan hizkuntza komunitate berri honetan integratzea. Ezin dezakezue imajinatu ere egin zein aldaketa erradikala suposatzen duen hizkuntza errealitate berri batetara ohitzeak.

Dena dela, euskara ikasketak onura ugari ekarri dizkit, bi mailatan: bai profesionalen eta baita pertsonalean ere. Izan ere, nire lanean, herritarrekiko harremanetan oinarritzen denez, oso garrantzitsua da euskara jakitea: ingurune honetan bizitzeko oinarrikoa iruditzen zait euskara ezagutzea”.

LABUR

Arrasateko autobus urbanoak ordubete lehenago bukatuko du jarduna, aste barruan

Datorren astlehenean, hilak 11, hasiko dira herri-autobusaren ordutegiaren murrizketarekin. Ordubete gutxiagoan ibiliko da autobusa. Horren arabera, astelehenetik egubakoitzera (biak barne) zerbitzua 21:00etan bukatuko da, 22:00etan bukatu beharrean. Zapatuetan, berriz, orain arte moduan segituko du urbanoak: 22:00ak arte.

Udaletxeko Obra, Zerbitzu eta Mantenu arloko buru Moises Altunak jakinarazi digunez, autobus urbanoaren defizit ekonomikoa finantzarioari aurre egiteko hartu dute ordutegia murrizteko neurria. Hain zuzen ere, joan den urtarrilaren 31n onartu zuen osoko bilkurak neurri hori.



Orain dela bost urte eman zien San Andresko alkatetzak lokala erabiltzeko baimena emakumei; 70 emakumetik gora dira taldean.

GIZARTEA/ Ika-mika dago San Andresko alkatetzaren eta emakume taldearen artean

San Andresko alkatetza eta emakume taldea, haserre

UBANE MADERA

San Andres auzoan ez dute adostasunik lortzen auzoko alkatetzak eta emakume talde batek. Emakumeek azken lau urteotan erabilitako lokala erabiltzen segitu gura dute. Alkatetzak, berriz, dio Arrasateko Udalarari dagokiola lokala uzteko erabakia hartzea.

Lau urtean, San Andresko emakume taldeak auzoko alkatetzaren lokala erabili izan du. Iaz, berriz, auzoko jaietan lehenengo, eta ekainean gero, lokala husteko eskatu zieten alkatetzatik. Emandako arrazoiaren arabera, lokal hura ez zen egokia emakumeek eskulak egiteko, auzoko alkatetzak batzarrak egiteko behar zuelako. Emakumeek kontatu digute harrezkero pare bat aldiz izan direla auzoko alkatetzakoekin berbetan eta ez dutela ezer lortu. Are

gehiago, harrezkero, alkatetzaren lokala hutsik dagoela. Gainera, adierazi digute emakume taldea gertu dagoela lokala edozeinekin konpartitzeko eta hala azaldu dutela behin eta berrero, baina beti ezeko erantzuna jaso dutela eta alkatetzak ez duela batere jarrera onik erakutsi.

Horren aurrean, auzoko jaiak datozela eta euren egoera salatzeke zerbait egitea pentsatu zuten emakumeek. Hain zuzen ere, jaiak antolatzen ez laguntzeko erabakia hartu dute. Eta zentimorik ez dutela emango iragartzen duten kartelak ipintzen ibili dira asteotan San Andresen. Ekimen horrek alkatetzaren haserre piztu du.

ALKATETZAREN IKUSPUNTUA

Hain justu ere, auzoko alkatetzak adierazi digu eurek beti ahalegindu direla emakumei laguntzen. Lokal barik geratu zirenean, udaletxera jo zutela haiendako lokal eske. Baita San Andresko

eskolara ere; baina ez dutela lokalik lortu. Berretsi dute alkatetzaren lokala ez dela egokia alkatetzaren eta emakumeen artean konpartitzeko. Eta emakumeek lokala lortu nahi badute, lehenengo elkarre moduan antolatu beharko luketela taldea. Diote horixe dela emakumeek segitu beharreko bidea, legeak hala dioelako. Azken batean, Arrasateko Udaletxeak duela lokal gainera eskumena.

Gaineratu digute ez dutela gai horrekin polemika gehiago sortu gura eta ez zaiela bidezkoa iruditzen emakumeek euren lokala aldarrikatzeko aukeratu duten bidea: auzoko jaien kontra egitea.

Horrenbestez, hortxe dirau liskarrak. Emakumeek diote lokal barik ezin direla elkarre moduan antolatu eta bestelako ekimenak eta antolatzeke orduan ez dietela eragozpenik ipini. Beraz, ez dute ulertzen zergatik ez dieten lokalik eman gura. Alkatetzak berretsi du Udalaren eskumena dela hori.

Froga bako epaiketa egiten dabilzala salatu du Arrietak

U.M.

Joan den astean, Amaia Arrieta arrasatearra aske utzi zuten. Edozelan ere, oraindik ez da haren kontrako epaiketa bukatu eta Madrilen da. Epaiketa politikoa egiten dabilzala salatu du, besteak beste.

Amaia Arrieta 1801 sumarioan dago inputatuta beste 42 gaztekin batera; Jarrai-Haika-Segiren kontra egiten dabilzala auzian, hain justu ere.

Joan den egubakoitzaz geroztik, baina, kalean da arrasatearra. Maiatzean bete behar zuen legeak kartzela prebentiboan egoteko ezartzen duen lau urteko muga. Hori argudiatu zuen Aitor Ibero abokatuak haren askatasuna lortzeko, eta epaileak onartu egin zuen. Hala, egubakoitzean Arrasatera etorri zen, eta harrera egin zioten lagunek eta ezagunek. Baina domekan bertan Madrilera bueltatu behar izan zuen, inputatuta segitzen du eta Amaia Arrietak. Eta asteotan dabilzala auzi hori egiten, Auzitegi Nazionalan.

ETA-RI LAGUNTZEAREN

Estatuko fiskalak hamar urteko kartzela-zigorra eskatzen du Arrasateko gaztearendako, ETARI lagundu egin diolakoan. Eta akuzazio partikular moduan, Terro-

rismoaren Biktimen Elkartek beste zortzi urteko kartzela-zigorra eskatzen du, genozidioa egin duelakoan. Azkenean, zortzi urteko gorako kartzela-zigorra ezartzen badiote, kartzelara itzuli beharko du Amaia Arrietak, zigorra oso-osorik betetzera.

ESKUBIDE JURIDIKOAK URRATUTA

Horren harira, Amaia Arrietak salatu du egiten dabilzala epaiketak ez dituela inputatuen eskubide juridikoak bermatzen. Bate-tik, polizia eta aurkeztutako frogak ez dutelako ezer erakusten, inputatutako gazteak Jarrai, Haika edo Segi elkarrekin kide zirela bakarrik eta horrek ez duela erakusten ETARI laguntzen ibili izan direnik ezta ETAKide direnik ere. Edozelan ere, gaineratu digu judizialki ezer frogatu ezin duten arren, egiten dabilzala epaiketa politikoa dela, "ezker abertzaleko egiturak kriminalizatzeko bidearen ondorioa"; horrenbestez eta *Egunkaria*-ren auziarekin gertatu zen moduan, erabakia Estatuko gobernuak aspaldi hartuta duela eta orain ezin dutela atzera egin. Gogora ekarri digu dagoeneko lau urtean izan dutela kartzelan, "inolako froga barik".

Jakinarazi digu pare bat aste barru-edo argitaratuko dutela Guevara, Ollero eta Pedraz epaileen erabakia.



Espeixaldian jasotako babes eskertu du Arrietak; aurrera egingo duela ere esan du.

CLINICA DENTAL BERGARA

- Odontologia orokorra
- Inplanteak
- Protesiak
- Hortz-estetika
- Periodontzia

ASEGURUAK

| | |
|--------------------|--------------|
| Ipresa | La Previsora |
| Sanitas | Aegón |
| DKV/Previa | Asepeyo |
| Asisa | Fraternidad |
| Azkaran | Fremap |
| Previsora Bilbaina | Adeslas |
| Pakea | Allianz |
| Grupo Eroski | |



FINANTZAKETA:
3 HILABETE ETA 5 URTE ARTEKOA

Bidekurutzeta 36, behea BERGARA 943 76 05 77

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 8**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ZAPATUA, 9**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- DOMEKA, 10**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ASTEHEHENA, 11**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- MARTITZENA, 12**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 13**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- EGUENA, 14**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 15**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERITXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguualatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Asteleheneetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**
Asteleheneetik egubakoitzera: 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok, eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzaila 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--|--|
| San Juan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna) | San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:00 (elebiduna) 19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza Zapatua 20:00 San Isidron (euskaraz) Domeka 12:30 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (elebiduna) | Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

TAILA IKASTAROA
Tailaginen Elkartek ikastaroa antolatu du. Hasierako mailakoa izango da, eta apirilaren 19an hasiko dute. Deitu honako telefono zenbakietara: 943 79 77 57 edo 943 79 40 79.

BERTSO-AFARIA
Gaur, egubakoitza, bertso-afaria egingo dute Arrano elkarteak, 21:30ean. Jokin Labayen, Manex Agirre eta Enaitz Alustiza izango dira. Txartelak salgai daude Iratin, 12 eurotan.

LIBURU AZOKA SEBERREN
Gaurtik, egubakoitza, hilaren 17ra arte liburu azoka egingo dute Seber Altuben.

ARIZMENDIKO BERBALDIK
Astelehenean, *Pentsamolde baikorra-jarrera baikorra* izango dute berbaiz Gazteluondon, 18:00etan; egunean, *Elikadura egokia, janariarekin arazoa*, 15:00etan, Basabeazpin. Egun berean, *Gaueko irteerak* azalduko dituzte Almenen, 18:00etan.

YOGA ETA MASAJEAK
Yoga Elkartek yoga eta masaje ikastaroak egingo ditu datorren astetik ekainera bitartean. Interesatuek jo egoitzara edo telefonoz deitu (943 79 20 85).

AEDrenAGENDA

EUSKAL KANTUEN LIBURUXKA
Sehaskak kaleratutako euskal kantuen liburuxka salgai dute AEDn. Familia edo lagun arteko ospakizunetarako aproposa da, eta 2,6 eurotan saltzen dute.


URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Dilista lapikoak, Erguin geldiarazita

Orain dela hamar urte, lapiko bat agertu zen Erguin auzoko espaloi baten gainean. Auzotar batzuek susmagarritzat hartu zuten eta Udaltzainek erantzutari deitu zioten, eta artezilariek, zepo bat jarriz, lehertu egin zuten. Lapikoa dilistaz (lentejak) beteta zegoen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



— Goiz guztia litxarreriak jaten, da ioñ eztauka bazkaltzeko goseik.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

| | |
|---------------------------------------|--------------|
| MINIMOA Eguaztena, 30 | 4 °C |
| MAXIMOA Eguena, 1 | 24 °C |
| ASTEKO EURIA (l/m²) | 4,6 L |

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Aita Santuaren heriotza eta hauteskundeak, horiek asteburuko gainbegiratuaren ardatzak

Aste Santutik bueltan kontu bati heldu behar izan diogu bete-betean, Aita Santuaren heriotzari, hain zuzen. Hala, besteak beste izan gara Polonian dagoen Eugenio Otsoarekin, Gipuzkoako Elizbarrutiko arduradun Juan Kruz Juaristekin eta azkeneko hiru urteak Erroman egin dituen Eli Saizekin. Lagun horiekin eta beste batzuekin aztertu dugu Aita Santuaren heriotzak eragin dituen gertakariak, eta beste hainbat kontu. Horrekin batera, Pello Zabala izan dugu meteorologia-

ren geltokian; bi kontu horiek jasoko ditugu asteburuko gainbegiratuan.


HAUTESKUNDEEN MAHAI-INGURUA
Zapatuan, 16:00etan, astean zehar GOITBn eskaini duten hauteskundeen gaineko mahai-ingurua errepikatuko dugu. Bertan esku hartu zuten Euskadi Irratiko kolaboratzaile Mikel Irizarrek, Argiako zuzendari Xabier Letonak eta MUKO irakasle Urko Lopezek. Datorren astean ere hauteskundeak izango ditugu berbaiz.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko gainbegiratu: Aita Santuaren heriotzaren gainean berbetan: Gipuzkoako Elizbarrutiko misioetako arduradun Juan Kruz Juaristi, Polonian dagoen Eugenio Otsoa, Erroman bizirik den Eli Saiz oñatiarra...
- 16:00 Hauteskundeen gaineko mahai-ingurua:
- DOMEKA**
10:00 Asteko gainbegiratu.
- ASTEHEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 IGO AUTOBUSERA!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Lande)
Elkarrizketak.
Zozketak, e.a...
- 11:05 Musika
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Zorion agurren tartea.
- 12:30 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

KALEINKESTA/ Hauteskunde kanpaiñek balixo daue ezertarako?



ALEX ULEZIA
Langillie



JOSE MANUEL SANTIN
Langillie



LUIS MARI MADINABERTIA
Langillie



UNAI LOITI
Langillie



ROSA MORALES
Langillie



MARI JOSE FERNANDEZ
Langillie

Ointxe etorri naz bakazi-
notatik, eta ondiokan ate-
rrizau barik nau. Ez daki-
dana da alderdi bat legez
kanpo egonda, gainontzeko
kanpaiñek zenbateraiñoko
zentzue daukien.

Neuk pentsetan dot bako-
txak bere idealak oso argi
daukola, eta hauteskunde
kanpaña haundixe egindde
be, hori ez dutziela aldatu
biher. Gutxirako balixo dau
emuten dauen txapa dana.

Pentsetako modue argi dau-
konak ez dau kanbixauko,
bainē izen leike dudan
dauenak alde batera edo
bestera egitteko baliaga-
rrixe. %90ek oso argi dau-
kie ze botau biher dauen.

Pentsetan dot zeozertarako
balixoko dauela, diru mor-
due gastetan daue-eta. Egi-
xe esateko, neuk ez dutziet
holako kanpañei kasu
haundirik egitten, bainē
dudan dauenak, iguel, bai.

Idearik be ez dauket. Neuk
ez dutziet iñungo kasurik
egitten, eta pentsetan dot ze
botau biher dauen argi dau-
konak be ez dauela kasu
haundirik egitten. Hori da
neuk uste dotena, behintzet.

Aspertu behintzet egitten
gare emuten dauen pelma-
da danakin. Pentsetan dot
ez dauela ezertarako bali-
xo, jentiek oso argi dauke-
lako ze gure dauen, dudan
dauenandako be ez.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZULOA ARBOLAPETAN Orain dela gutxi, oporren aurre-
tik, hainbat herritarren kexa jaso genuen Foruen plazatik Aretxa-
baletarako errepidean hainbat zulo zeudelako. Horietako batzuk kon-
pondu dituzte, eta horregatik txaloak eman beharrean gaude. Hala
ere, aste honetan beste zulo baten berri eman digute irakurleek. Hona-
ko hau Arbolapeta plazan dago, Olarte kalearekin bat egiten duen
errepidean. Bide horretatik egunero pasatu behar izaten duten hain-
bat lagunek hori konpontzeko eskatu dute.

ASTEKODATUA

46.730

EURO GASTATUKO DITU
APIRILEAN KULTURA SAILAK

Udaleko Kultura Sailak 46.730
euroko aurrekontua onartu du
apirilera. Apirilera I. Musi-
kaldiarendako da diru kopuru
handiena: 30.000 euro inguru,
hain zuzen ere. Horrez gain, Libu-
ruaren Nazioarteko Egunekeki-
taldia eta beste egingo dituzte.

USTEAKUSTE

Aste hau (eta aurrekoa, eta
hurrengoa) Aita Santuarena
moduan gogoratuko dugu. Izur-
garria da komunikabideok
horren gainean hartzaileak
aspertzeko hartu dugun ohitura.
Oporretan non-nahi egon arren,
zaila izan da Vatikanoko kontuen
berri ez izatea. Egia da Aita San-
tuaren figura oso garrantzitsua
dela munduan, eta horrek ia edo-
zein presidentek baino botere
handiagoa daukala. Baita ere,
horren oinordetzak munduan
zeresan handia izango duela. Gal-
de iezaiozue, bestela, Afrikan
hiesaren erruz hiltzen diren
milaka lagunei edota homose-
xualei eta lesbianeiei, adibidez.
Juan Pablo II.ak ez zituen pre-
serbatiboak baimendu gura izan,
eta heterosexuak ez zirenak ez
zituen inoiz onartu. Wojtylak
munduan asko bidaiatu zuen,
eta zeresana izan zuen Poloniak
jasan zuen aldetan eta baita
Berlingo harresiaren suntsike-
tan, baina horrek ez du santu
bihurtzen, besteak beste, lehen
aipatutako arrazoiengatik.

Bestalde, gure ibarrera buel-
tatuz eta gaiez zeharo aldatuz, ira-
kurleok ikusiko duzue eskuar-
tean daukazuen ARRASATE
PRESS ez dela ohikoa. Aldaketak
egin ditugu, eta hemendik aurre-
ra herri gehiagotako albistek
irakurri ahal izango ditugu aste-
ro, eta lagun gehiagok izango
dute gure berri. *Goienkaria*-rekin
Debagoieneko ikuspegia hartzen
hasi garen moduan, Leintz bai-
larako ikuspegia hartzen hasiko
gara orain.

IKER BARANDIARAN

HERRITARRENBERBAK/ Antton Mendizabal



18/98+
sumarioa

Inork ez zuen espero orain
6 urte Garzonek hasitako
sumarioan hainbeste
atxilotu, torturatu eta
eskubide urraketa ikustea.
Datuak emanda 220 lagundik
gora auzipetuta daude; fiska-
lak 1.102 urteko espetxe-
zigorra eskatzen du 62 lagu-
nentzat; 645 urteko
espetxe zigorra
Haika-Segi suma-
rioan auzipetutako
42 lagunentzat.
Hasierako 1.000
milioi pezeta baino
gehiago fidantza-
ordainketetan; asko
dira torturatatuak
izan direnak; lau
hedabide (*Egin*,
Egin irratia, *Ardi Beltza* eta
Egunkaria) itxi dituzte eta
beste sumario batzuk ere
atzetik datoz.

Sumario horietan dagoen
filosofia honako hau da: ETAK
ezarritako helburuekin ados
daudenak, edo horren alde lan
egiten dutenak ETAKo militan-
teak dira. Logika hori aplika-
tuz ETAK sozialismoa aldarri-
katzen badu, beraz Patxi Lopez
ETAKo militantea da. Bigarre-
na, orain Habermas filosofoak

esandakoaren txarrena hartu
eta gaizki ulertaraziz, "demo-
krazia militantearen" kontzep-
tua, zeinak disidentzia guztiei
eskubideak kentzen dizkie.
Kontzeptu hau dominaziorako
tresna gisa erabiliko dute; eta
horrela, faxismo garaikidea
justifikatuko dute. Jakina,

demokrazia militan-
te izenari, demokra-
zia hitza aldatuz
"erregimen militan-
tea" ezartzen
badiogu, gure
hurbileko historian
Franco, Pinochet,
Batista, Trujillo,
Videla, Mussolini
edo Hitler moduko
adibideak dauzkagu

hemen.

Hirugarrena, hemen
legalitatea eta zilegitasuna
nahasten dituztela ikusten
dugu. Baina gauza ezberdinak
dira. Legalitatea arlo juridiko-
politikoan oinarritzen da. Eta
zilegitasuna arlo etiko-filosofi-
koan. Eta biak ezin dira
uztatu. Egungo Euskal
Herrian garbi ikusten dugu
hori: hemen, legala dena ez da
zilegi, eta zilegi dena ez da
legala.

**"Euskal Herrian
garbi ikusten dugu
hori: hemen, legala
dena ez da zilegi
eta zilegi dena
ez da legala"**

Aretxagazeta

Otalora Lizenziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

MUSIKA / Apirileko I. Musikaldia

Ganbara eta abesbatzen kontzertuak barra-barra izango dira herrian apirilean

IKER BARANDIARAN

Udaleko Kultura Sailak egitasmo berezia antolatu du: Apirileko I. Musikaldia. Gaurtik, egubakoitza, hilaren 30era bitartean, ganbara eta abesbatzen zortzi kontzertu egingo dituzte San Juan Bataiatzailearen elizan eta Amaia Udal Antzokian.

Debagoienarrei ibarrean ganbara eta abesbatzen emanaldiak ikusteko eta entzuteko aukera eskaini gura diete. Hala azaldu zuten Udaleko Kultura Saileko ordezkari Ines Aldaik eta Jon Garaik, eta ekitaldietan esku hartuko duen Conductus Ensembleko Andoni Sierrak eta Iñaki Olai-zolak.

Udalak antolatu du, eta Arrasateko Musika Eskolaren eta Euskadiko Kutzaren laguntza jaso du. Zortzi kontzertu antolatu dituzte. Horietatik lau San Juan Bautista elizan egingo dituzte, doan. Gainontzeko laurak, berriz, Amaia Udal Antzokian, eta sarre-raren truke. Horrez gain, aipatu beharra dago Arrasateko Musika Eskolako bazkideek behera-penak izango dituztela.

PUNTA-PUNTAKO PIANO JOTZAILEA

Musikaldiak gaurtik, egubakoitza, hilaren 30era arte iraungo du, eta 30.000 euro inguruko aurrekontua dauka. Gaur, egubakoitza, Bergara, Arrasate eta Oñatiko abeslariak osatutako Lausardi abesbatzak emanaldia egingo du organo jotzaile baten laguntzarekin. 20:30ean izango da, San Juan Bataiatzailearen parrokiaren doan. Iñaki Maidaganen zuzendaritzapean, John Stainerren *The Crucifixion* eskainiko dute.

Bihar, zapatua, Poloniako Maciej Pickulsky piano jotzai-



Harrera ona jasoz gero, musikaldi gehiago antolatu gura dituzte antolatzaileek.

leak kontzertua egingo du Amaia Udal Antzokian. 20:30ean izango da, eta sarrera ordaindu beharko da. Pickulsky munduko antzoki garrantzitsuetan egin ditu kontzertuak, eta Parisiko Kontserbatorio Nazionalen irakasle lanak egin ditu, besteak beste. Schubert eta Chopinen piezak joko ditu. Piano jotzaile horrek Euskal Herrian bi emanaldi egingo ditu: bata, Donostian, eta bestea, Arrasaten.

MOTA ASKOTAKO EMANALDIAK

Antolatzaileak saiatu dira hainbat musika mota batzen, eta hainbat musika instrumenturen soinuak erakusten. Horrez gain, abesbatzak ere gonbidatu dituzte.

Datorren egubakoitzean, hilaren 15ean, Cristina Sanchez harpa jotzaileak emanaldia egingo du San Juan Bataiatzailearen elizan, 20:00etan. Hilaren 16an, Cadem hari laukotea izango da.

Hilaren 22an, Bilboko Orpheo Ganbera abesbatza izango da; eta 23an, Saxo Ensemble taldea. Bukatzeko, hilaren 29an, Quadrabit Perkusio Taldeak esku hartuko du; eta 30ean, Conductus Ensemblek.

ERANTZUNAREN ARABERA, JARRAIPENA

Antolatzaileek nabarmendu dute ikusleen erantzunak laguntzen badu, musikaldi gehiago egingo dituztela.

Frantziako bi film emango dituzte: komedia bat eta 'Amelie'-ren egilearen azkeneko maisulana

I.B.

Musikaz gain, filmak ere emango dituzte Amaia Udal Antzokian, asteburuan. Domekan eta astelehenean, *Largo domingo de noviazgo* emango dute; eta eguenean, *Como una imagen*.

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Apirileko I. Musikaldia dela-eta, kontzertu bereziak egingo dituzte Amaia Udal Antzokian. Horregatik, bi egun horietan ez dute ohiko film emanaldiak egingo.

Domekan, hilaren 10ean, eta astelehenean, hilaren 11n, *Largo domingo de noviazgo* filma emango dute. Drama kutsua daukan lan hori Jean-Pierre Jeunetek zuzendu du (*Delicatessen*, *La ciudad de los niños perdidos*, *Amelie...*) eta 134 minutu irauten du.

I. Mundu Gerra bukatzeaz dagoela, Frantziako neska gazte batek berri txar bat jasoko du: haren senargai zauritu dute eta heriotza-zigorra ezarri diote. Mathildek ez du mutil-laguna galtzerik onartu gura, eta haren bila joko du denbora luze-

an. Bilaketan aurrera egin ahal, gerraren gordinkeriaren gainean gehiago jakingo du. Hala ere, ez du etsiko.

Protagonistak honako hauek dira: Andrey Tatou (*Amelie, Sólo te tengo a tí...*), Gaspard Ulliel (*Besen a quien quieran...*), Marion Cotillard (*Big Fish, Taxi 2...*), eta Jean-Pierre Darroussin (*Marie-Jo y sus dos amantes...*), besteak beste.

EGUENEAN, KOMEDIA BAT

Domekan, hilaren 10ean, gazte-txoendako filma emango dute. Abenturazko *Spy Kidd 3-D*.

Eguenean, *Como una imagen* filma emango dute. Komedia horrek 110 minutu irauten du, eta Agnés Jaouik (*Para todos los gustos...*) zuzendu du. Hainbat lagun bereziki eta pasarteak ezagutzeko aukera izango dugu: politagoa izan gura duen Lolita gaztetxoa; zahartzaroaz oso arduratuta dagoen Lolita-ren aita Etienne; federik ez duen Pierre idazle ezezaguna; eta daukan talentuan sinisten ez duen Sylvia musika irakasle trebea, besteak beste. Norbere burua lagundu beharrean, elkarri laguntzen saiatuko dira.

KULTURAPILULAK

Liburuaren Egunaren gaineko ekitaldi ugari

Urtero moduan, Udaleko Kultura Sailak eta Udal Liburutegiak hainbat ekintza antolatu dituzte Liburuaren Egunaren gainean.

Atzo, eguena, Maite Frankok 4 eta 6 urte artekoendako ipuin kontaketa egin zuen euskaraz, eta hilaren 27an, Santamainako Auzo Liburutegian egingo du. Martitzenean, hilaren 12an, Kubako Coralía Rodríguez ipuin kontalariak bi saio egingo ditu: bata, 18:00etan, Haur Liburutegian; eta bestea, 19:30ean, Monterrongo hitzaldi aretoan. Biak hala biak gaztekeraz.

Aspaldiko partez, liburu azoka egingo dute herrian. Gaurtik, egubakoitza, hilaren 17ra arte egingo da Seber Altuben. Horrez gain, Monterronen *El placer de leer* izeneko argazki erakusketa jarri dute hilaren 24ra arte.

Discipline eta beste musika talde batzuk 3.60 aretoan

Street-punka eta rock indartsua gustuko dutenek beste bi hitzordu dituzte asteburuan: gaur, egubakoitza, Discipline, Des-Kontrol eta Suspenders taldeek kontzertua egingo dute 3.60 aretoan. 23:00etan izango da, eta sarrera 10 euro izango da (8 euro, aurrez erosiz gero). Holandako Disciplinek izen handia dauka punk taldeen artean.

Bihar, zapatua, Kataluniako Tokyo Sex Destruction eta Bizkaiko Dirties taldeek emanaldia egingo dute, 23:00etan, areto berean. Tokyo Sex Destructionen musikak Make Up eta International Noise Conspiracyrenekin antzekotasunak dauzka.

Arrasate Lehiaketan finalistak aditzera eman dituzte

AEDk eman du aditzera zeintzuk diren aurtengo Arrasate Lehiaketetan finalistak. Hala erabaki du epaimahaiak. Hilaren 20an, eguaztena, egingo dute sari banaketa Monterronen, 18:30ean. Ordura arte itxaron beharko dute zein sari jasoko duten jakiteko.

Honako zerrendan ez ditugu lehiaketetako sailak bereiztu: Garazi Sagasta, Elene Berzibar, Imanol Esperesate, Hodegi Balantzategi, Jone Sagasta, Ahinize Errasti, Maite Gonzalez, Oihane Altuna, Lore Mar, Jone Agirregabiria, Olatz Ezpeleta, Garazi Azkoi-tia, Irati Egia, Olaia Zabalo, Iñigo Merino, Ane Herrero, Asier Fernandez, Danel Iriarte eta Unai Azkarate.

BOTEPRONTUEN

Angel Marco

LEINTZ GARRAIOAK

XABIER URTZELAI

Angelek urte asko egin euen Roneon eta Zerrajeran lanien, eta Udalien ibilli zan gero, transportien gaiñeko ikerketak egitten. Urbanue ipiñi euenien, enpresaburuak berai ofrezidu eutzien enpresie zuzenketako ardurie, eta horretan ibilli da azkeneko bost urtietan.

Zenbat lagun zabitze Leintz Garraioetan lanien?

Hamar autobus gidari, idazkari eta ni neu.

Autobusien, baiñe etxetik gertu.

Bai, gu hamen inguruen ibiltten gare. Urbanuek Mondraguen ibiltten die, eta gaiñontzeko autobusek eskolendako eta enpresendako egitten daue lan. Gero, aste bukaeretan, sagardotegiek, bodegak eta bestelako eskursiñuetan ibiltten gare, baiñe hamen inguruen.

Noixtik aste bukaeretan lanien?

Juen dan urteko urtarrillien hasi gitzen horretan. Kontue da astien ziber lanien dabitzen horreik autobusok ezin diela aste bukaeretan gelditi egon, ez dielako aprobeztetan.

Zein da zeuon lanbideko gauza txarrena?


Emun biher jakon dedikaziñue. Kontuen hartu 04:00etan hasten garela lanien, eta 23:00etan bukatu. Eta asteko zazpi egunetan egitten doule lan. Telefonuekin ohera sartzie ez da brometako kontue.

Zein da Mondragueko trafikuen arazue konponketako bidie?

Transporte publikue gehixau potentzietie. Erdialdien biherrien, aparkalekuek auzuetan ipinttie, eta kotxie biher dan moduen ibilttie. Enpresa igualien lan egin eta etxe berien bizi, eta hala eta be, bakotxa bere kotxien jueten da lanera.

Ze pentsetan jatzu tranbian proiektue?

Dudie dauket; izen be, Bergararik Mondraguera etorteko horrenbeste parada egittie...



XU

“Tranbia eta urbanue bateragarrixe izen biherko litzakez, auzo batzuetako zerbitzue hobeketako”

Gaiñera, zeuk klientiek galduko dozue.

Hori be egixe da, baiñe beste formula batzuk topauko geuke. Kontuen hartu tranbia ez dala leku danetara aillegauko, eta auzo asko indertu egin biherko litzakez. Kontue izengo litzake tranbia eta urbanue bateragarri egittie, eta tranbia aillegetan ez dan auzuetan urbanuen zerbitzue hobeketie.

Zeuon lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Disponibilidadie.

Zerk emuten dutzu begixetan min?

Geure illobendako zelako mundue ixten gabitzen ikustiek.

Lana alde batera itxitte: ze fal-

“Transporte publikuek gehixau potentziau biher die, eta kotxie biher dan moduen ibilli”

ta jako Mondragueri?

Anbiente haundixae, eskaintza hobie... Gaztiek aste bukaeretan herrixen geraketako motibuek eukittie.

Eta ze dauko ona?

Daukon aberastasune.

Ze falta jatzu zeuri?

Lasaittasune.

Eta ze dauketzu sobran?

Lana.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

El hombre tranquilo / El nombre de la rosa / Beatles.

Kapritxo bat?

Eguakotxetan andriekin eta lagunuen batekin egitten doten txikiteotxue.

NIREBIDAIAHURA/ Julia Monge

Myanmar-era (lehengo Birmania) / 2004ko azaroan

Myanmarren egin zuten zortzigarren egunean Mahagandayon-go monasterioan izan ziren Julia eta Banoako gainontzeko bidaiariak: “Egun interesgarria izan zen. 1.400 budista bizi diren monasterioa ordubetez egoten da turistendako irekita, eta bertan zegoen isiltasunak eta lasaitasunak harrituta utzi ninduten. Gaztetxo asko zeuden han, eta ezin nuen sinistu ikusten ari nintzena: denak formal-formal, isil-isilik. Hemengo edozein ikastetxetako gela batekin alderatuta...” Lurralde hartako gaztetxo guztiek egiten dituzte hiru edo lau hilabete monasterioan, eta gero bakoitzak erabakitzen du jarraitu edo ez.

“Hurrengo egunean bidaiaria luzea egin genuen Irawady ibaian gora. Egia esateko, ontzian egin genituen bidaiak asko gustatu zitzaizkidan. Mandalaytik Bagan-era egin genuen, eta herri hori asko gustatu zitzaidan. Baganen, taberna moduko batean utzi nuen kamiseta ahaztuta, eta gaztetxo batek korrikaldi galanta egin zuen kamiseta itzultzeko; horrekin erakutsi gura dut han ez dagoela inongo arriskurik eta jendea benetan dela jatorra. Hangoen irribarrea benetakoa da, ez zerbait gura duenak egiten duen irribarrea bezala. Horrek erakusten du lurralde hartan oraindik ez dagoela turismo handirik”.

Lau egun egin zituzten Baganen: “Oso gustura izan ginen han, erabateko lasaitasunean. Handik Popa Mendira jo genuen. Urrutitik polita zen, baina hara iritsi ginen ez zitzaigun beste munduko ezer irudititu. Tximino mordoa zegoen han, baita haien kakak ere”.

Gaixotasunei aurre egiteko deigarria da hangoetan izeneko krema zenbat erabiltzen duten: “Gaztetxoak goitik behera igurzten dituzte krema horrekin, malariari aurre egiteko, eta baita eguzkitik babesteko ere. Baina nagusiek ere aurpegian ematen dute krema hori; beste helburu batekin, makillaje modura”.



“Hangoen irribarrea benetakoa da, eta igarri egiten da”

XABIER URTZELAI



Amarapurán dagoen Hubein izeneko zubian ateratako erretratuak.

BASATI TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

943 711762

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR

García Ripa

ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiaik eta aulkiak

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



GARAGARTZATIK ANOETARA, ERRUGBIAZ GOZATZERA

Joan den asteburua berezia izan zen Arrasateko errugbi-zaleendako. Asteburu biribila prestatu zuten ARTkoek. Zapatuan, lagun arteko partidua jokatu zuten Madrildik eta Sevillatik etorritako errugbi jokalarien kontra (15-10), eta hirugarren zatian indarrak ondo neurtu eta gero, domekan, Anoetara joan ziren guztiak Biarritzen eta Irlandako Munster taldearen arteko partidua ikustera (19-10). Norgehiagoka aparta izateaz gain, Anoetan egon zen giroa ez zen gutxiagorako izan. Behingoagatik bada ere, asteburuan errugbia izan zen protagonista, bai Arrasaten, eta baita Donostian ere.



BELDURRIK EZ EBRO IBAIKO 'MUNSTROARI'

Argazkikoak dira Koldo, Ibai, Danel, Asier eta Joxe, eta Zaragozan eman dute Aste Santua, Mequinenzan. Bertan arrantzatu dute iruditzen dagoen 1,80 metroko eta 56 kiloko silurua. 'Ebroko munstroa' izenarekin ere ezagu-

tzen dute arrain hori, tamaina handikoa delako. Koadrila horretakoak azkeneko hiru urteotan Ebro inguruan ibili dira Aste Santuan. Joan den urtean, 2,07 zentimetroko eta 62 kiloko silurua arrantzatu zuten. Aurtengoa Koldok atera du.

Muruko antena etxetik ikusten baduzu, banda zabaleko eta kablerik gabeko internet zerbitzua izan dezakezu!

Horrela, hauek guztiak egin ahal izango dituzu etxetik bertatik herrira hurbildu gabe:

- **Goiena.net:** bailarako berriak, blog zerbitzuak... - **Banketxeko** tramiteak... - **Udalarekin** kontsultak...
- **Hezkuntza:** matrikulazioak, noten kontsulta... - **Aisialdia:** ekitaldietarako sarrerak... - **Erosketak** interneten...

Informazio gehiagorako, deitu telefono honetara: 943 79 81 91 (Kelnara)

kelnara
banda zabala

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

Seinalea jaso dezaketen auzoak: **Aramaio** (Untzilla, Azkoaga, Barajuen, Gureia, Zabola, Arexola, Etxaguen eta Gantzaga). **Aretxabaleta:** Aozaratz, Oro, Larrino, Izurieta, Galartza, Arkarazo eta Arenaza. **Eskoriatza:** Apotzaga, Mendiola, Bolibar eta Gellao. **Arrasate:** Udala, Bedoña, Garagartza eta Gesalibar. **Leintz-Gatzaga.**

E, TXO!

GUREGAIK/ GAZTETXEAREN URTEURRENA

**TXATXILIPURDIREN
UZTAILEKO UDALEKUAK**

Dagoeneko Txatxilipurdi elkarteak guztia prest dauka uztaileko udalekuetarako. Interesatuak jo Pablo Urangan duten bulegora izena ematera.

**BERTSO-UDALEKUAK ERE
EGINGO DITUZTE**

Berezitasun moduan, Txatxilipurdi ohiko udalekuen eskaintza zabalaren barruan bertso-udalekuak egingo ditu. Egonaldi horietan gaztetxoek bertsoaritzaren gainean ikasiko dute.

**GITARRA IKASTAROA
ERGUINGO GAZTE TXOKOAN**

Erguingo gazte txokoan gitarra ikastaroa antolatu dute. Eguaztenetik, hilaren 13tik, ekainaren 1era arte egingo dute. Irakaslea Mirian Domingos izango da, eta plaza mugatuak daude. Interesatuak 10 euro ordaindu beharko dituzte.

**UDALEKUAK ETA UDAKO
EKINTZAK, ALDUNDIAREKIN**

Gipuzkoako Foru Aldundiak 7 eta 13 urte bitarteko ume eta gaztetxoendako udalekuak eta 14 eta 17 urte bitartekoendako udako ekintzak antolatu ditu. 7, 10 edo 14 eguneko egonaldiak izango dira. Kanpalekuak, hizkuntza egonaldiak edo abenturazko ekintzak izango dira. Txikienak Euskal Herrian eta gaztetxoek, Euskal Herriaz gain, Espainiako Estatuko hainbat herrialdetara joan ahal izango dute.

Zozketarako izenemate-epeak honako hauek dira: 7 eta 13 urte bitartekoek dagokienez, apirilaren 5etik eguaztenera, hilaren 13ra; eta 14 eta 17 urte bitartekoendako, apirilaren 19tik hilaren 29ra, hain zuzen ere.

Arrasatearrek Gazte Bulegora jo dezakete izena ematera.

'14 urtez sasi guztien gainetik' lelopean, gazte batzarraren egitarau zabala

IKÉR BARANDIARAN.

Gazte batzarrak 14. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu. 1991n ospitale zaharreko gaztetxea okupatu zeneko eguna hartu dute aintzat, eta askotariko ekintzak egingo dituzte.

Arrasateko egungo gaztetxea Uarkapen dago eta ekainean urtebete egingo du. Hala ere, gazte batzarrak (AGAKOk) ospitale zaharra okupatu zuteneko data hartu du kontuan. Iaz, *Ametsak egi bihurtuz* leloa erabili zuten; eta aurten, *Sasi guztien gainetik*. Kontatu digutenez, salatu gura dute aspaldian hainbat gaztetxek izan dituzten erasoak.

Honako egitaraua antolatze-ko orduan, gazteak saiatu dira ohiko programazioan egiten dituzten ekintzez gain beste batzuk antolatzeko: Asiako filmak, gai askoren gaineko berbaldiak, pilota eta areto futbol txapelketak, Udaberri Jaia... Nabarmena da, besteak beste, jaia, kirola, kultura eta sistemarekin kritikoak diren esperientzien gaineko informazioa uztartu dituztela, besteak beste. Hortaz, gazte askorenda-



Kontzertu asko egiten dituzte. Argazkian, Potemkin taldea. Urteurrenean, berriz, askoz ekintza gehiago egingo dituzte.

ko moduko ekitaldiak antolatu dituzte.

BIHAR, UDABERRI JAIA

Joan den egubakoitzean, hilaren 1ean, eta domekan, Askapenak


brigaden gaineko berbaldia egin zuen, eta *Zatoichi* filma eman zuten. Bihar, zapatua, Udaberri Jaia ospatuko dute. Goizetik iluntzera arte honako ekintzak egingo dituzte: tortilla lehiaketa, txikiteoa, kantu-bazkaria, jolasak eta Djanboreé taldearen perkusio eta dantza ikuskizuna. Tortilla lehiaketak harrera ona izan du, eta izenematea zabalik dago.

KOADRILEN PILOTA TXAPELKETA

Etzi, domeka, koadrilen arteko binakako pilota txapelketa egingo dute Uarkapen. Interesatuak Iratin eman beharko dute izena lehenbailehen. Finala hilaren 24an egingo dute. Horrek ere harrera ona izan du.

Horrez gain, domekan *Hero* filma emango dute, 17:30ean. Datozen egunetan ere egongo da zer egin eta ikusi: hilaren 15ean, Debako gaztetxearen DVDa aurkeztuko dute; eta 16an, koadrilen arteko 24 orduko areto futbol txapelketa egingo dute Zaldibarren. Zaldibarko txapelketako antolatzailen laguntza jaso dute, eta interesatuak Iratira jo beharko dute. Futbola gustuko ez dute nendako, Komando Autonomoaren gaineko berbaldia egingo dute egun berean.

Hileko azkeneko bi asteetan anorexiaren, AHTren eta Gaztelako ezkertiarren gaineko berbaldiak, kontzertuak, film emanaldiak eta beste egingo dituzte.



Hainbat gazte batzen dira gaztetxean, batzarrak eta bestelako ekimenak egiteko.

Tortilla lehiaketak eta pilota eta areto futbol txapelketek harrera oso ona izan dute

Gai interesgarrien gaineko berbaldiak eta Asiako filmeen emanaldiak egingo dituzte

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurak armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

GRUPO RKUZ

1950
Zure etxea da
2005



GRUPO RKUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK


Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



GRUPO RKUZ
SUHALDE INTEGRALA

Mitarte 3
FAGOR  Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

GRUPO RKUZ
ELEKTRAGAILUAK

Andramari auzunea
expert  Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zein jai dabilta ospatzen 1995ean ateratako argazki horretan?
Arrastoa: uztaileko lehen domekan ospatu dute jai hori azken hamar urteotan.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Coca-Cola
bi litroko botila

1,99 € 198 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

LIERNI AXPErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Lierni!
Galderen erantzun zuzena:
Obenerrekan.

ERRETRATUZHARRA

Arrasateko atleta taldea Iturripen

Argazkian ikusten duzuen kirolari talde hori Arrasateko atleta taldea zen, 1965ean. Denetarik dago argazkian: korrikalariak, iraupen lasterkariak, jauzilariak, pisu-jaurtitzailak... Argazkia, berriz, Iturripeko futbol-zelaian dago aterata.

Honako hauek azaltzen dira, zutik, ezkerretik hasita: Bergaretxe, Laguni-lla (bi horiek atletismo taldeko zuzendaritza batzordeko kideak ziren), Urtzelai, Aranburuzabala, Heriz-Velasco, Azkonaga, Elgezabal, Mendiaratx, Bedia eta Alvarez. Eta makurtuta, ezkerretik hasita: Garai, Jose Antonio Iraola, Iturbe, Jose Maria Iraola, Osinaga eta Bedia C.

Jose Ramon Urtzelaik ekarri digu argazkia. Kontatu digu kezkatuta dagoela Arrasateko kirolaren egoerarengatik, batez ere orain, Mondra futbol-talderako zuzendaritza taldea osatu ezinda dabilzalako. Eta horregatik ekarri digula irudiotako argazkia, herriko kirolari bultzadaxoa ematen laguntzeko.



Argazkira itzuliz, hor agertzen ez diren baina sasoi hartan atleta onak ziren beste batzuk ere gogora ekarri nahi izan ditu gure berriemaileak. Mora eta Murgoitio, esaterako. Baita emakumezkoak ere: Rosa Maria Otxandiano, Mertxe Otxandiano, Zuñiga, Vazquez eta Etxabe, besteak

beste. Baina batez ere, Zufiria gogora ekarri du. Esan digu hura zela atletismoaren arima; besteak beste, gainerako guztiak atleta izateari utzi ziotenean, Zufiriak lanean segitu zuelako.

Kontatu digu, baita ere, probintzia mailako lehiaketetan parte hartzen zuela Arrasateko atletismo taldeak,

eta ez zutela bitarteko askorik; besteak beste, futbol-taldearen dutzak erabili behar izaten zituzten.

Argazkia eta informazioa: Jose Ramon Urtzelai
Urtea: 1965.

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza.

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 11 35

Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

JOVI

10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



Izcue Irurzun

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI s.l.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxa: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 8a

375. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

OSASUN ETXEA/ Ohiko zerbitzua dute mediku eta erizain batek arratsaldeetan, eta larrialdi kasuak 17:00ak arte bakarrik hartzen dituzte

Mediku eta erizain batek iluntzeko zortziak arte egiten dute lan osasun etxean

MIRARI ALTUBE

Orain dela hilabete inguru hasita 20:00ak arte egoten da zabalik osasun etxea. Hala ere, ohiko zerbitzua eskaintzen dute, eta larrialdi kasuak 15:00etatik 17:00ak arte bakarrik hartzen dituzte. Umeek, ostera, Arrasateko osasun etxera joan behar dute.

Aldaketak egin dituzte azken hilabetean osasun etxean. Lehen, goizetan bakarrik egiten zuten lan mediku eta erizainek; orain, arratsaldeetan ere bai, iluntzeko zortziak arte, hain zuzen.

ARRATSALDERA PASATZEKO AUKERA

Goizetan lan egiten duten hiru medikuak lanez gainezka zebiltzala ikusita batetik, eta Lagun Aron lan egiten zuten hainbat mediku libre geratzen zirela jakinda bestetik, beste mediku bat ekarri du Osakidetzak gurera. Hark, baina, arratsaldeetan egiten du lan, 15:00etatik 20:00etara, hain zuzen. Medikuekin batera erizain bat eta administrari bat egoten dira.

Aldaketa orain dela hilabete inguru egin zuten, eta medikuarengana goizetan joaten ziren hainbat herritarri arratsaldera pasatu zieten zerbitzua. Galdetu



Goizetan zerbitzua duten medikuak lanez gainezka zebiltzalako jarri du Osakidetzak medikua arratsaldeetan.

barik egin dute aldaketa; hortaz, erabakiarekin bat ez datozen gaixoek kexa aurkezteko aukera daukate. Hala ere, lehenengo sei hilabeteetan ez dute aldaketarik egingo eta arratsaldeetan joan beharko dute medikuarengana.

Bestalde, medikuaren zerbitzua goizetan daukan baten batek arratsaldera pasatu gura badu,

eskatu besterik ez du. Izan ere, arratsaldeko medikuak lekua dauka oraindik.

LARRIALDI KASURIK EZ

Arratsaldeetan eskaintzen duten zerbitzua ohikoa da, hau da, medikuak bere gaixoak bakarrik hartuko ditu eta hitzordua eskatuta etorri behar da. Larrial-

di kasuak 15:00etatik 17:00etara hartzen dituzte, baina geroago gertatuz gero Arrasateko ospitalera joan behar da. Umeen kasuan, 14:00ak arte bakarrik egoten da pediatria zerbitzua gure osasun etxean.

Zapatuetan, ostera, 09:00etatik 14:00etara hartzen dituzte nagusien larrialdi kasuak Aretxaba-

Goizetan lan egiten duten hiru medikuak lanez gainezka zebiltzala ikusita jarri dute

Zerbitzua goizetan daukan baten batek arratsaldera pasatu gura badu, eskatu besterik ez du

Larrialdi kasuak 17:00ak arte hartzen dituzte, gero Arrasatera joan behar da

letako osasun etxean; umeen kasuan zerbitzurik ez dago, eta Arrasateko osasun etxera eraman behar dira.

Aralar kezkatuta dago Aretxak Udalean ezin duelako parte hartu

M.A.

Kezkatuta daude Aralarko zinegotziak. Aretxa plataformak Udalean parte hartzea ezinbestekoa dela diote, eta EAJ alderdiaren borondate faltaren aurrean erabakiren bat hartzekotan geratu dira.

Aralarko hiru zinegotziak, Xabier Sarasua, Joxe Anjel Antxia eta Peli Beltran de Heredia, ez dauke batere konforme EAJk erakutsitako jarrerarekin.

Aralarrek baldintza bi jarri zizkion EAJri gobernu batzordean sartzeko: aniztasunean eta elkarlanean gobernatzea eta legez kanpo utzitako Aretxa plataformak Udalean parte hartzeko akordiora iristea. Iaz, urte bukaeran, Aralarren, Ezker Batuaren eta Aretxaren artean proposamen bat adostu zuten, azken horrek Udalean parte har zezan. Proposamenaren osoko bilkuran aurkeztu zuten martxoan, baina EAJk, PPK eta PSE-EEK ez zuten onartu. Lege arazoak zeudela esan zuen orduan

Arrixu Oliden alkateak, baina, Xabier Sarasuaren esanetan, borondate falta besterik ez da.

ERABAKIA HAUTESKUNDE OSTEAN

Hori horrela, Aretxabaletako Aralar alderdiak herriaren alde jarraituko duela lanean adierazi zuen eguaztenean egin zuen prentsaurrekoan, baina nekez jarraitu ahal izango dutela udal gobernuan gaineratuz. Erabakia hauteskundeak pasatu ostean eta EAJren jarrera ikusi eta gero hartuko dute.



Kezkatuta azaldu ziren prentsaren aurrean Aralarko hiru zinegotziak.

GUREGAIK/ LORAMENDI EUSKARA ELKARTEAREN UDABERRIKO ESKAINTZA

Hitzaldiak, antzerkia eta euskararen astea daude udaberriko egitarauan

MIRARI ALTUBE

Loramendi Euskara Elkarteak atzo hasi zituen udaberrirako gertatutako ekitaldiak. Hitzaldiak izango dira nagusi, baina tartean antzerkia Bihotz Bakartien Klubaren eskutik, eta euskararen astea maiatzean.

Atzo, eguna, hasi zuen Loramendi EEk udaberrirako antolatutako egitaraua. Hemendik eta uztailera bitartean, hitzaldia dela, antzerkia dela, astero izango dugu ikusteko zer edo zer.

GAI ASKO ETA INTERESGARRIAK

Txiapasen gaineko emanaldia egin zuen atzo Gorka Quebedok. Datorren astean, oster, antzerkia izango dugu. Bihotz Bakartien Klubak *Arrakalak* antzezlanaren eskainiko dio udaletxe zaharrra hurreratzen denari. Egubakoitzean, apirilak 15, izango da, 21:30ean.

Hitzaldi ugari antolatu dituzte Loramendi EEko kideek; ugari eta gai asko ukituko dituztenak.

Maiatzaren 16tik 21era euskararen astea egingo dute, eta zapatuan Euskararen Eguna

Apirilaren 21ean, eskualdeko kon-dairak kontatzera etorriko da Imanol Biain oñatiarra. Urtarri-lean bertan behera geratu zen emanaldia da hori. Maiatzaren 5ean, hartzaren gainean egingo du berba Migel Mari Elosegik. Animalia misteriotsua da hartz, Pirinioetan bizi dena, eta Migel Marik hobeto ezagutzen lagunduko du.

Maiatzaren 12an, *Griot* bidaia liburua aurkeztuko du Jon Arretxe idazleak; eta 26an, eguzkiak dakartzen arriskuak izango dituzte berba Mari Karmen eta Xeli Etxeandia ahizpek. Bukatzeko,



ARTXIBOA


Hartza, sukaldaritza eta Jon Arretxeren bidaia liburua izango dituzte berba.

Edorta Agirre sukaldari eta idazleak *Euskal sukaldaritza antropologia* liburua aurkeztuko du ekainaren 2an.

EUSKARAREN ASTEA

Maiatz erdian, 16tik 21era hain zuzen euskararen astea egingo dute. Oraindik zehaztu barik dituzten hainbat ekitaldi egongo

dira astean zehar, eta zapatuan, hilak 21, Euskararen Eguna ospatuko dute. Gero eta indar handiagoa duen jai da, eta aurten ere, gazta dastatzea, euskal dantzak eta beste horrenbeste ikuskizun egongo dira. Horrez gain, hainbat ikastaro egingo dituzte datozen asteotan; ardo dastatzea, mekanika eta lorezaintza tartean.



Espaloietako jaitsierak egokitzen

Espaloietako jaitsierak egokitzen hasi da Udala. Hala, gutxitu fisikoendako legeak eskatzen duena beteko du. Herriaren alde batetik bestera doan ibilbidea aukeratu dute Hirigintza Sailean, eta tarte horretako espalo guztiak egokituko dituzte. Gorpildun, aulkian dabilzanak herria batetik bestera arazo barik pasatu ahal izatea da helburua. Orain Belorrieta auzo inguruan dabilta lanean, baina herriko beste hainbat puntu egokitu beharko dituzte langileek. /M.A.

FARMAZIEN TXANDA

ZAPATUA, 9
FRAILE Herriko Plaza 10.. 943 79 21 99
DOMEKA, 10
FRAILE Herriko Plaza 10.. 943 79 21 99

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Industrialdea 943 79 62 80
Institutua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Gazteria saila 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHL 943 79 57 40
KZGunea 934 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola 943 71 21 18
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Orati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE

PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA

Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:

LARRINQ
Ez dago mezarik.
MENDIOLA
Domeketan: 11:30 (Otoitzaldia bakarrik)
GELLAO
Ez dago mezarik.

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen denda

Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

AZKARATE
aroztegia

943 76 47 19
eta 610 88 40 20

ateak • leihoak
horma-armairuak
tarimak • parketak

LANTOKI BERRIA
LABEGARAIETAKO
INDUSTRIALDEAN
BERGARAN



FUTBOLA

Urrezko intsigniak jarriko dizkiete Kepa Azkue eta Erik Gartziari domekan

Preferente mailako taldean 10 urte egin dituztelako emango dizkiete intsigniak

M.A.

Urrezko intsignia jasoko dute preferente mailan jokatzeko duen taldeko jokalariek. Arrazoia da 10 urte egin dituztela UDAko taldearekin. Intsignia jarri ostean, derbia egongo da Ibarra futbol zelaietan: Mondra izango dute aurrez aurre aretxabaletarrek.

Hamar urte egin dituzte preferente taldean Kepa Azkue eta Erik Gartzia jokalariek. Hori eskertzeko eta oroigarri gisa urrezko intsigniak jarriko dizkiete etzi, domeka. UDAk eta Mondrak jokatuko duten derbia baino lehen izango da ekitaldia.

Kepa Azkue Antiguoko taldean hasi zen jokatzeko 1984an. Handik Realera pasatu zuten, eta gero beste talde askotan jokatu zuen:



Intsigniak jarri ostean Mondraren kontrako derbia jokatuko dute Ibarra.

Mutriku, Alaves (90etik 92ra bitartean profesional mailan), Mondra eta azkenik UDAn. Erik Gartzia, oster, 89an hasi zen Almengo kadeteen mailan, eta gainerako urteak UDAn egin ditu.

Lasagabaster-Altzola bikotea Udaberri Txapelketako finalerdian

Gaur jokatuko dute partidua, Azkoitian, Larramendi-Zapirain bikotearen aurka

M.A.

Udaberri Pilota Txapelketako finalerdia jokatuko du gaur ilunkaran Lasagabaster-Altzola bikoteak Azkoitian. Nagusien bigarren mailan jokatzeko dabilen Uriarte-Oion bikoteak, oster, ligako azken partidua jokatuko du gaur, egubakoitza, Antzuolan.

Udaberri Pilota Txapelketako finalaren aurrean daude Lasagabaster-Altzola aretxabaletarrek. Horretarako, baina, irabazi egin behar dute gaur, 21:00etan, Azkoitian jokatuko duten partidua. Larramendi-Zapirain bikotea izango dute aurrez aurre.

Uriarte-Oionek, oster, gaur jokatuko dute liga Antzuolan, eta emaitzaren arabera final-laurdenetan egon ahal izango dira.



Oion-Uriarte ere final-laurdenetan egon daitezke Antzuolan irabaziz gero.

Eguazten ilunkaran, bestalde, Debarroko Pilota Txapelketa hasi zuten Aretxabaletako bi bikoteak: Errasti anaiek eta Oion-Uriartek.

Hirugarren bikoteak, Lasagabaster-Altzolak, astelehenean jokatuko du Debarroko Txapelketako lehenengo partidua.

TRIALSINA

Euskadiko Trialsin Txapelketa hasi dute, eta Oihana Aldai lehenengo postuan dago

Joan zen domekan, apirilak 3, egin zuten Euskadiko Txapelketa lehenengo proba Errenterian. Oso ondo ibili ziren aretxabaletarrek, eta sailkapeneko lehenengo postuetan daude. Oihana Aldai lehenengo dago emakumeen artean, Maitane Anduezarekin berdinduta, eta Nagore Uriarte bosgarren postuan dago. Markel Uriarte laugarren postuan geratu zen infantilen mailan, eta Aitor Murua bigarren mailan alebinen artean. Benjaminei dagokionez, bigarren postuan dago Unai Zuntzunegi eta seigarren mailan Iker Mendikute. Txapelketako hurrengo probak datozen asteotan egingo dituzte, eta ziur asko aldaketak egongo dira sailkapenean.

XAKEA

Donostiako Nazioarteko Xake Txapelketa polita egin zuen Aitor Alcaidek Aste Santuan

Martxoaren 19tik 26ra bitartean jokatu zuten Donostiako Nazioarteko Xake Txapelketa. 111 lagun elkartu ziren bertan, tartean Arlutz Xake Taldeko Aitor Alcaide aretxabaletarra. "Maila handia egon zen, eta oso pozik nago egindako lanarekin", zioen Aitorrek. Izan ere, 32. postuan bukatu zuen txapelketa.

Martxoaren 29tik apirilaren 3ra bitartean, bestalde, Euskadiko Xake Txapelketa jokatu dute, eta hemen ere izan da Aitor Alcaide. "24 lagun elkartu gara, eta ni ez naiz batere ondo ibili", zioen hurrengo egunean. Orain oporralditxo hartuko du Aitorrek.

GOLFA

Mikel Galdosek jokatzeko duen Euskadiko taldeak mailaz igotzea lortu zuen zapatuan

Mikel Galdos golf jokalaririk aretxabaletarrek jokatzeko duen Euskadiko taldea mailaz igo da joan zen zapatuko kanporaketa irabazirik ostean. Sei kanporaketa jokatu ditu Mikelek, hiru bikotearekin eta bi bakarka, eta horietatik bost irabazi ditu. Zaragozan jokatu zuten azken partida, eta zortzi talderen artean bakarrik irabazi da lehen mailara. Euskadiko taldea 2002. urtean jaitsi zen bigarren mailara, eta orain berriro izango da onenen artean.

Burgosko Lerma herrian egiten dabilen txapelketa jokatzeko dabil orain Mikel. Eguaztenean hasi zuten, eta bihar jokatuko dute txapelketa. Golf jokalaririk profesionalen artean jokatzeko dabil Mikelek.

PARTIDUAK

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA-Mondra
Preferentea.
Domeka. 16:30. Ibarra.
UDA/Arizm.-Amara Berri
Lehen mailako gazteak.
Zapatua. 16:30. Ibarra.
UDA/Arizm.-Antonio
Lehen mailako kadeteak.
Zapatua. 15:30. Ibarra.
UDA-Lengokoak
Alebinak.
Domeka. 11:15. Ibarra.

FUTBOLA

Pasaia 2 UDA 2
Preferentea.
UDA/Arizmendi atsedena
Lehen mailako gazteak.
UDA/Arizmendi atsedena
Lehen mailako kadeteak.
UDA/Arizmendi atsedena
Bigarren mailako kadeteak.
UDA/Arizmendi atsedena
Infantil ohorezko maila.
UDA/Arizmendi atsedena
Infantil txiki.

Almen/UDA atsedena
Emakumeen liga.
Almen/UDA 2 Urola 2
Emakumeen F-8 liga.



BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta


Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Mobiliario
ARENAZA


- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Herrittarrak hasi die gorputze gertaketan udai begire? Ze eskaketan daue?




XELI ETXEANDIA
Gemes estetika zentroa



BIXEN GALZON
Goiena Sport



SOLE MARTINEZ
L-10 ile apaindegia



JOSEBA ERAÑA
Zainduz fitness zentroa



ENERITZ JAUREGIALZO
Kixkur ile apaindegia



JAVI GIL
Fino ile apaindegia

Bai, Gabon ostien asko igerri gutzen, eta oin be bai. Solariuma eta gorputzeko tratamentuk eskaketan dittue. Gaiñera, hoba da hiru bat hillebete lehenau hastie tratamentukin.

Aste Santuko oporrak bukatu eta lanien hasi barri gauz; hortan, ondiokan ez dou askorik igerri. Hori bai, urtarriletik hona bai aerobikak, bai spinnigak gora egin daue.

Aste Santuei begire igerri gutzen, eta oin bueltan gutxiu. Gehixen depilaziñuek, solariume eta aurpegiko tratamentuk eskaketan duskue; kilotxuek kendu gure dittuenak be badauz.

Bai igerri dutzou, batez be fitnessaren kasuen. Bana-kako entrenamentu saiuek gora egin daue nabarmen, eta aerobikak be bai. Spinnigean ez dutzou hainbeste igerri.

Bai, Aste Santu aurretik lelengo, eta oin be hasi da jentie etorten. Depilaziñuek eta solariume eskaketan daue gehixen. Ulien kolorie aldaketan be jente gehixau animetan da oin.

Bai, udabarriko eguraldi onakin jentie poliki-poliki animaez doie. Gorputzerako kolorie hartzeko txandak emuten nabil, eta orrazkerie aldaketako be askok eskaketan dustie.

TXALOKETATXISTUAK



TXALOK EGUZKI PLAKAK Kurtzebarri eskolan azaro inguruan eta kirol etxean martxoan eguzki plakak jarri dituzte. Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak sinatutako hitzarmenari esker jarri dituzte. Urtean 2.500 kilowatt inguru produzituko dute plakek, eta kirol etxean minuturo zenbat energia ekoizten dabilzan ikusteko aukera izango dute herritarrek. Ea hasiera bakarrik den hau. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Umeak liburutegian izan ziren bisitan

Apirilaren 2an umeen Liburua-ren Nazioarteko Eguna ospatzen zela-eta, bisitak antolatu zituzten Udal Liburutegira. Herriko ikas-tetxeetako hainbat ume pasatu ziren bertatik, eta Joseba Lopez de Armentia arduradunak liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuen berri eman zien.



ASTEKODATUA

16

LAGUN KULTURA LAGUNTZAILE POSTURAKO

Kultura laguntzaile postua bete gura du Udalak baja bat dela-eta. 16 lagunek eman du izena posturako, horietatik bost aretxabaletarrek. Azterketa noiz izango den oraindik ez dute zehaztu.

BESTEKEESANA

Komunikabideetan jokatzeko dira hauteskundeak, ezohiko iragarkiekin, beste modu batera (Vaya Semanita saiko El Pelanas pertsonaiak EAJ-EA hauteskunde kanpainaren hasieran parte hartu du). Botoak gutxi aldatzen dira, eta pentsatu behar genuke eraginkortasuna ez dela hain garrantzitsua.

MARIA AGIRRE
'Asteleheneko Goienkaria'/05-04-04

Gure ustez Amorrortuk ez du jarraituko Realean. Zuzendaritza aldaketarekin batera entrenatzaile aldaketa ere egongo da Realean, eta Amorrorturi gelditzen zaion urtea diruz ordainduko diotela uste dugu.

EVA AGIRRE
'Asteleheneko Goienkaria'/05-04-04

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



Euskal Erdiko Itzulia

Azken hilebetien Euskal Herrixen fan etorrixek gelditu barik dabitz. Oin hillebete Korrika pasau zan geure artetik geratu be ein barik, eta Euskal Herri dana takarraran pasau ostien sartu zan Bilboko zazpi kaltetan barrena labe garaiek botaten dauien keiaz nahastute. Atzien geratu die ja lekuko aldaketak, aldapak, izerdixek, estuasunek, barriek, herrixek, jentie, umiek...

Gaur, oster, Euskal Erdiko Itzulia amaitu da Oñatiko lurretan, Arantzazun. Bost egunien hamaika pedalkada emun ostien ailegau die helmugara txirrindularixok. Heltzeko muga Arantzazu izen da, baina nunbait Euskal Herrixai bueltia emuteko mugaz beste aldera dauen iparraldia hantxe itxi daue, eskuma aldien ahaztute.

Fan etorrixekin hasi naz, eta fan etorri honeikin jarraituaz, Aste Santutan be

era danetako lagunek eta ez hain lagunek izan ditugu gure Euskal Herriko lurretan. Gaztiek Bizkaia aldien egon die batute, Markinan hain zuzen, ibili dabilen herriak oztoporik ez duelako. Baina trabak hamaika izen die, duda barik; batez be Bizkaia aldera

"Heltzeko muga Arantzazu izen da, baina nunbait iparraldia hantxe itxi daue, eskuma aldien ahaztute"

sartzeko kolore berdez jantzitako gizonek ipinitakuek. Eta oztopo danen gainetik euskal gazterixiek badaki zer egin eta barrero be aurrera ein dau. Gaztiekin jarraitetan noie, Madrilen dazen gazte auzipetuen epaiketiek be ez dau deskantsurik hartzen eta. Epaille lanak beteten dituztenak lanez lepo dabitz; izen be, hiru letrako berbak itzultzeko komerixa galantak eukiten dabitz. Bitartien, epaiketen gainetik gazte eta errebelde izeten jarraitu gure daue kamiseta gorrixek soiniin dituela. Animo gaztiak eta segi aurrera Euskal Herriko baztarretik!!!!

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 8a / 203. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otlora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

TURISMOA ETA AISIALDIA/Udalak bisitariendako eskaintza egokitu gura du

Ibarraundi jauregia bisitariendako gune zentrala eta informazio puntua izango da

IKER BARANDIARAN

Eskoriatzako Udalak oso argi du bisitariendako harrera hobeto antolatu gura duela. Urtero ikasle ugari etortzen dira herrira, baina bestelako bisitariendako dagoen eskaintza ere hobeto erakutsi gura du. Hori guztia Ibarraundi jauregitik antolatuko dute.

Urtero Eskoriatzara kanpoko hainbat bisitari etortzen dira. Batez ere, ikasleak izaten dira horiek eta orain arte Museo Eskola ikustera etorri dira. Udaleko Turismo eta Kultura Ondareko zinegotzi Juan Luis Merinok emandako datuen arabera, iaz, esate baterako, 2.000 ikasle pasa ziren herritik.

Iazko urrian Ibarraundi jauregia eraberritzen bukatu zuten, eta hortaz Museo Eskola zena hara eramaten dihardute. Material gehiena Ibarraundin daukate, eta horri esker ez dituzte ikasleak bisitatu eten. Are gehiago, erakusketa erraldoi hori handitzeko eta osatzeko asmoa daukate.

JAUREGIA, INFORMAZIO PUNTUA

Bestalde, Ibarraundik beste hainbat erabilera izango ditu. Horien artean, Udalak jauregiko harre-



Ibarraundi jauregiari erabilpen ugari emango diote, eta horien artean, bisitariendako harrera lekua egingo dute.

ran udalerriko informazio puntua jarri gura du. Eskoriatzara datozen bisitarien udalerraren gaineko informazio zabala jasoko dute, eta handik herriko puntu interesgarriak bisitatu ahal izango dituzte.

Harrera puntu hori egin gura dute Ibarraundiren inaugurazio ofiziala egiten dutenerako. Segu-

*Elizateetan
seinaleak jarriko
dituzte, eta
bisitariendako
liburuxkak kaleratu*

ranenik, San Pedroko jaietan izango da ekitaldi hori. Ordurako ez da Ibarraundi jauregia guztiz hornituta egongo, baina aurreikusitako zerbitzu gehienak emango ditu. Horrekin batera, udalerriko elizateetan eta bidezidorretan seinaleak jarriko dituzte.

Horrez gain, asmoa daukate udalerraren gaineko liburuxka-

txikiak kaleratzeko. Liburuxka horietan gomendatuko dute herrian zer ikusi. Juan Luis Merino zinegotziaren esanetan, liburuxkak ez dituzte lehenago kaleratu, logotipoa aukeratu barik zegoelako.

IKUS-ENTZUNEZKOA EGINGO DUTE

Bisitariari harrera egiteko, Udala harremanetan dabil zenbait enpresekin, ikus-entzunezkoren bat egiteko. Asmoa da bideo labur baten bitartez Eskoriatzako historia, jaiak, eskaintza turistikoa eta kultura ondarea erakustea.

Juan Luis Merinok nabarmendu du udalerrian hainbat gauraz interesgarri daudela ikusteko: "Nik neuk Ibarraundi jauregia bera, zazpi elizateak eta Atxorrotx nabarmenduko nituzke. Esate baterako, Apotzaga bera eta hango kanposantu biribila; Bolibar eta han dagoen Etzeberri baserria, besteak beste. Horrez gain, Atxorrotx Eskoriatzako ikurra da, eta hara edonor igotzeko bidezidorrak prestatu ditugu".

Bestalde, eraikin osoari museo funtzionamendua emateko proiektua egingo dute. Horretarako, hiru enpresei aurrekontuak eskatu zituzkiete. Hemendik hilabetera hasiko dira horren gainean lehiaketa publikoa zehazten. Proiektu hori egiteak luze joko duela argitu zuten.

Dorleta auzoan 40 autorendako aparkalekuak jarri dituzte

I.B.

Dorleta auzoan aparkalekuak egin dituzte saihesbidearen azpian. Martxoaren bukaeran bukatu zituzten, eta 40 bat autorendako lekua dago bertan. Aparkalekuek mesede egingo diete auzotarrei.

Udako oporren ostean abian jarriko dituzte Dorleta auzo urbanizatze lanak. Udalak hainbat interbentzio egin gura ditu auzo horretan, eta lan

horiek irailean hasi gura dituzte. Luze jo dezakete lanek.

Bitartean, lan horiek auzotarrei eragingo dizkieten eragozpenak neurri baten txikitzeko, Udalak aparkalekuak egin ditu Dorletan, saihesbidearen azpian. Lurzoru zati handi bat leundu, egokitu eta aparkaleku bihurtu dute. Martxoaren bukeran egin zuten lan hori, eta dagoeneko auzotarrak hasi dira berau erabiltzen. 40 bat autok dute hor aparkatzeko aukera, eta mesede egingo dio auzoari.

APARKALEKUAK, BEHIN BETIKO

Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoak azaldutakoaren arabera, urbanizatze lanek auzotarrei aparkatzeko eragingo dizkieten arazoak aintzat hartu zituzten, eta horregatik interbentzio hori egitea erabaki zuten.

"Hala ere, auzoko lanak bukatu ostean, aparkalekuek bere horretan jarraituko dute. Ez daukagu kentzeko inolako asmorik, on egingo digu-eta", argitu zuen Juan Carlos Bengoak.



Urbanizatze lanak bukatu ostean, aparkalekuek bere horretan jarraituko dute.

FARMAZIAREN GAINEKO JARDUNALDIAK, HILAREN 11TIK 24RA

Antzinako farmaziaren gaineko berbaldiak eta erakusketa bitxia

IKER BARANDIARAN

Ibarraundi jauregian farmaziaren gaineko jardunaldiak egingo dituzte asteleheneetik, hilaren 11, hilaren 24ra arte. Erakusketa jarriko dute, eta helduendako eta gazteendako berbaldiak egingo dituzte.

Farmaziaren gainean zerbait egiteko ideia lehenagotik dator. Museoko teknikari Nerea Aranaren esanetan, iaz Errepublikaren gaineko erakusketa jarri zuten, eta material hori Guardiako Lagunen Elkarteak utzi zien. Orduan ohartu ziren farmaziaren gaineko erakusketa bat ere bazutela. Eskoriatzara ekartzekotan egon ziren, baina konturatu ziren Ibarraundin ekitaldi gehiago egin zitezkeela.

XX. MENDE HASIERAKO ERREMINTAK
Astelehenean, hilaren 11n, zabalduko dute erakusketa. Ikusgai jarriko duten materiala Guardiako Lagunen Elkartetik eta EHUko Farmaziako Fakultatetik ekarri dute. Gauza asko batu dituzte: ontziak, sendabelarrak, prestakinak, lehengaiak, ekoizpenerako tresnak eta laborategiko materiala. Hau da, probetak, morteiruak (morteroa), prentsak... XX. mende hasierakoak dira. Erakusketa horren bidez antzeman daiteke botikariekin zelan lan egiten zuten iraganean.



Bitxia da ikustea iraganeko botikariekin zer material erabiltzen zuten.

BERBALDI INTERESGARRIAK
Erakusketaren bitartez antzinako botikarien lana antzeman daitekeen arren, bi adituk horren gaineko berbaldiak egingo dituzte datozen egunetan Ibarraundi jauregian.

Astelehenean, hilaren 11n, Alfredo Elortza botikariak *Sendabelarren tratamendu eta propietateak. Euskal Herriko tradiziozko medikuntza* berbaldia egingo du. 18:30ean izango da. Hilaren 20an, Antonio del Barriok *Farmaziaren historia, botikako 1.000 gaien bitartez* izango du berbaldia. 18:30ean.

Eta hilaren 14an, Alfredo Elortzak eskoletako gaztetxoei xarabe eta enplastuak zelan egin azalduko die.

TELEFONOJAKINGARRIAK

| ESKORIATZA | |
|---------------------------|--------------|
| Udaletxea | 943 71 44 07 |
| Udal bulegoak | 943 71 45 32 |
| Udaltzaingoa | 943 71 44 07 |
| Euskaltegia | 943 79 21 68 |
| Kultura etxea | 943 71 46 88 |
| Gizarte laguntzailea | 943 71 31 36 |
| Kirol etxea | 943 71 53 28 |
| Liburutegia | 943 71 31 35 |
| Luis Eceiza | 943 71 53 56 |
| Jose Arana Almen Ikastola | 943 71 44 86 |
| Almen | 943 71 49 07 |
| Museo Eskola | 943 71 54 53 |
| Axtroki | 943 71 40 77 |
| HUHEZI | 943 71 41 57 |
| Osakidetza | 943 71 44 52 |
| Telesko | 943 71 49 17 |
| Taxiak | 943 71 40 59 |

| BESTELAKOAK | |
|-------------------------------|--------------|
| Eskualde ospitalea (Arrasate) | 943 00 53 00 |
| Gurutze Gorria (Bergara) | 943 76 55 76 |
| Erzaintza (Arrasate) | 943 79 71 99 |
| Suhiltzaileak (Oñati) | 943 79 28 00 |
| Renfe (Zumarraga) | 943 72 15 15 |
| Renfe (Gasteiz) | 945 23 20 30 |
| PESA (Arrasate) | 902 10 12 10 |
| Larrialdiak (Arrasate) | 943 77 10 43 |
| SOS Deiak | 112 |

OHARRAK

SASKIBALOA
Bihar, zapatua, junior mailako partidua jokatuiko dute 16:00etan, Indulitaren kontra. Ordu berean, kadete mailako taldeak ere jokatuiko du Internazionalen kontra.

ARETO FUTBOLA
Ohorezko Ligako areto futboleko partidua egingo dute Aguraingo taldearen kontra, 18:00etan.

TREN ZAHARRAREN ARGAZKIAK
Tren zaharraren argazki erakusketa jarriko dute Inkernu tabernan. Bihar, zapatua, zabalduko dute eta hilaren 23ra arte egongo da ikusgai.

AXTROKIRENAGENDA

DATORREN EGUBAKOITZEAN ANTZERKIA HUHEZI-N
Hilaren 15ean, Teresa Lopez de Muniainek *Ugaziun baten antsiak* antzezlan egingo du HUHEZIKo aretoan, 22:30ean. Axtrokik antolatuta.

LABUR

Udal langileek egingo dituzte lurperatzeak Marinen, Apotzagan eta Mendiolan

Orain arte Udalak ez zituen bere kargu hartzen elizateetako kanposantuetako lurperatze lanak. Orain dela gutxi, berriz, elizate batzuetatik Udalarik laguntzeko eskaera egin diete. Hain zuzen ere, Marinen, Apotzagan eta Mendiolan ez dituzte horma-hilobiak erabiltzen. Horregatik, lan handiagoa ematen die lurperatzeak, eta ustez laguntza premian daude.

Udalak zazpi elizateei egin die eskaintza, baina hiru horiek bakarrik eskatu dute. Hortaz, beharra dagoenean, Udaleko bi langilek egingo dute lan hori. Zoritxarrez, astean bertan horren premia izan dute, hainbat auzotar hil direlako.

Haurtzaroa eta hizkuntza berbagai izango dituzte

I.B.

Udaleko Euskara Sailak Haurtzaroa eta hizkuntza leloa daukan ikastaroa antolatu du. Eguztenean, hilaren 13an, eta egunean, hilaren 14an, egingo dute, kultura etxean. Urtxintxako Oihana Munduatek emango du.

Udaleko Euskara Sailak Urtxintxa elkartera jo zuen hizkuntzak haurtzaroan duen garrantziaz jabetzeko. Hortaz, bi eguneko berbaldi-ikastaroa antolatu dute. Bilboko Urtxintxa elkarteak Oihana Munduate psikologoa izango da berorren arduraduna, eta batez ere gurasoei zuzenduta dago.

Oihana Munduatek azpimarratutakoaren arabera, "ez dugu hezkuntzaren gainean askorik berba egingo. Batez ere, gurasoei, familiari eta etxekoei dagokie azalduko duguna".

Bi eguneko egingo dute. Eguztenean, hilaren 13an, eta egunean, hilaren 14an. "Lehenengo eguneko gaiaren aurkez-

pen antzeko bat egingo dute, eta gurasoek euren kezka edo zalantzak plazaratuko dituzte. Bigarren egunean, arlo zehatzagoak azalduko dituzte".

TXIKITATIK HIZKUNTZAK IKASTEAN

Munduatek azalduko dituen puntu garrantzitsuenak honako hauek dira: umeek hizkuntza zelan bereganatzen duten ikustea; txikitatik hainbat hizkuntza ikastea umeengan duen eragina ezagutzeko; gurasoek umeen hizkuntzen bereganatzean izan dezaketen funtzioa aztertzea; eta elebitasunetik eleaniztasunerako jauziaren gaineko hausnarketa egitea, besteak beste.

Besteak beste, umeek txikitatik hainbat hizkuntza ikastearen eragina aztertuko dute

MIRENTXU TABERNA
Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

AZKOAGA ESTANKOA
943 71 48 77
Zure Zerbitzura

bedardenda
Tel.: 943 71 43 27
ESKORIATZA

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko apirilaren 8a / 145. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

AHTren gaineko zundaketak egiten hasiko dira laster

UBANE MADERA


Bi enpresak baimena eskatu dute Aramaion zundaketak egiteko. Abiada Handiko Trenaren bi zati eraikiko dituzte enpresa horiek: Eskoriatza-Aramaio eta Aramaio-Arrasate.

Laster hasiko dira zundaketak egiten Aramaioko lurra aztertzeke, Abiada Handiko Trena pasatu behar den tokietan. Asistencias Técnicas y Servicios Tecnológicos 98 SL eta APIA XXI enpresek egingo dituzte. Gutxi gorabehera, bi hilabetez jardun-go dute lanean.

Zundaketok egiteko udalean baimena eskatzeaz gainera, trenak zeharkatuko dituen lurren jabeen ere baimena eskatzen ibili dira. Bolinburu baserriko Luis Mari Erizek, esaterako, euren hiru bider izan direla kontatu digu.

NONDIK NORA

Proiektuaren arabera, Zabola azpian hasi eta Kataiaraino, tren kanpotik joango da, airetik. Kataian zubia zeharkatuko du eta Cuatrovientos inguruan tunelean sartuko da. Gasteiztik etorrita, Osinalden izango du sarrera tunelak, gero Azkoaga, Zuazu eta Untzila auzoen artean pasako da. Tune-



Udaletxean dago Trenbide Sarearen Lurralde Zatikako Plana, ikusgai.

lak hiru kilometro pasatxo izango ditu. Aramaio ibaia zeharkatzeke, berriz, 535 metroko luzera eta 50 metroko altuera duen zubia eraikiko dute. Santa Agedako bidea hartuko du handik aurrera.

Gasteiztik Aramaiora honako udalerriak zeharkatuko ditu: Gasteiz, Arrazua-Ubarrundia, Legutiano, Leintz-Gatzaga, Esko-

riatza eta Aramaio. Eta hortik aurrera, berriz, honakoak: Arrasate, Bergara eta Antzuola.

Lanak noiz hasiko diren, berriz, oraindik ez dute zehaztu.

Edozelan ere, informazio gehiago behar izanez gero, udaletxean Trenbide Sarearen Lurralde Zatikako Plana dago, edozeinen eskura.

Korrika 14ren gaineko balantze positiboa

U.M.

Korrika dela-eta, elkarten eta bestelako enpresen partehartzea nabarmendu du Udalak, alkatearen idatzi batekin.

“Aramaiotik martxoaren 16an igaro zen Korrika. Guztia behar bezala atera zedin honako elkarte hauek osatu zuten Batzorde Antolatzailea: Txirritola Euskara Elkarteak, San Martin Eskolak, Gurasoen Elkarteak, Lagun Artean Dantza Taldeak, Orixol Mendi Elkarteak, Papargorri umeen abesbatzak eta Udalak.

Arrasatetik, 22:00ak aldera sartu zen Araban Korrika eta Aramaio erditik pasatu ondoren,

Untzillatik Aretxabaletara abiatu zen. Bederatzi kilometro egin zituen eta guztiak erosi ziren: Udalak, EAJk, eskolak, Txirritola elkarteak, guraso elkarteak, gazte asanbladak, Orixolek, dantza taldeak eta EAk. Horrez gainera, beste hainbat laguntzaile ere izan zituen. Aramaiora heldu aurretik Santakurtz plazako jaietan hainbat taldek hartu zuten eta parte: txalapartariak, dantzariak, abesbatzak, trikitilariak eta Legutiano txistulariak. Jai borobiltzeko emakume taldeak txokolatara egin zuten guztiandako. Gainera, Ehiztari Txokoan, Untzillako elkarteak, Izarra elkarteak eta eskolan 325 euro batu dira. Eta beste 58 euro itsulapikoetan”.



HERRITARREN HITZA / Manex Agirre • Ikaslea

Aurrera-atzerak

Denbora pasa da, eta denbora pasatzen denean ez dago zereginik, nahiz eta memoria gelditzen zaigu. Korrikaren amaiera eguna Bilbaon: bertako basque-episy bat (gehiago) gogoratu nahi nuke.

Euskarari gorputz eta arima eskainitako ekimena da Korrika, eta era berean euskarari gorputz, arima eta gibel eskainitako festa da bere amaierarena. Haize freskoa, erditu berria dakarren festa gainera: euskararen munduan aspalditxotik zibak bezala biraka dabilzanen ondoan haragi freskoa dugu, euskaldun-berri eta euskaldun-zahar(usteko)ak sinbiosi

perfektuan, norbaitek esango lukeen bezala. Zentzu horretan gustatzen zaizkit horrelako egunak, beste ezerekin gainera: kolore berriak dakartzatelako. Deialdi nazionalako festak deiturikoek (Lesako Sanferminak, Zarautzeko euskal-jaiak, Lekeitioko antzar-eguna) duten lizun usain izpi hori difuminatu egiten da Korrikaren amaiera egunean.

Hara non, goizeko ordu txikietan metxero bat iristen



“Aramaiok antolatzen al du Kilometroak?”

zaidan esku artera egun horretan bertan. Aurtengo Kilometroak-en propaganda-metxeroa da, eta honako lema du bertan: KILOMETROAK Arrasate Aretxabaleta Eskoriatza Leintz Gatzaga Aramaio eta ez dakit zer gehiago. Metxeroa urdina da. Itxaron apur batean.

Nola Aramaio? Aramaio antolatzen al du aurtengo Kilometroak? Harridura orokorra inguruko artean. Bi azalpen aurkitu nitzake

honen aurrean: 1. Aramaioko udaletxeak dirulaguntza eman du; Aramaioko biztanle bezala ulertzea beste erremediorik ez dago. 2. Aramaiotik Almenera ikastera joateko “tradizioan” oinarrituta zaku berean sartu gaituzte Kilometroak-en antolatzaileek. Zergatik ez dituzte Oñati edo Soraluze edo Bergara sartzen, bertan ere tradizio apur bat egonda? Ala noraino iristen diren erakutsi nahi dute soilik?

Artikulu hau galdera bat da, erantzun bat behar dut. Bitartean Bilboko egun hartatik atzetik dudak ekidinezinezko lizun usainez inguratuta jarraituko dut.

LABUR

Udalekuetarako izena emateko epea zabaldu dute

Diputazioak abiarazi du udalekuen eskaintza. Astebeteko egonaldiak eskaintzen dituzte, euskaraz, ele bitan edo espainolez. Uztailaren 1ean hasi eta abuztuaren 14ra arteko txartelak izango dira. Interesa dutenak apirilaren 15a baino lehen eman beharko du izena, foru aldundiak Jesusen Zerbizariak kalean dituen lokalean. Apirilaren 21ean egingo dute lekuen zozketa. Horrez gainera, beste autonomia erkidego edo herrialde batzuekin itundutako truke-bidaia ere eskaintzen ditu diputazioak.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

| | |
|---------------------------|--------------|
| Osasun etxea (txandak) | 945 44 53 40 |
| Botika | 945 44 50 03 |
| Udaletxea | 945 44 50 16 |
| Ertzaintza (Arrasate) | 943 79 71 99 |
| Gurutze Gorria (Legutio) | 945 45 52 52 |
| San Martin Eskola | 945 44 50 04 |
| Taxia eta autobusak | 945 44 50 33 |
| Udal kiroldegia | 945 44 53 35 |
| Postetxea | 945 44 50 83 |
| Zuiko Eskualdea | 945 43 01 67 |
| Suhiltzaileak (Zubillaga) | 943 78 28 00 |

AUTOBUSORDUTEGIA

| ARRASATE | ARAMAIO | GASTEIZ |
|----------|---------|---------|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00* | 10:15 | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00* | 12:15* | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30* | 18:45 | |
| 20:30 | 20:45 | 21:25 |
| 21:00* | 21:15 | |

| GASTEIZ | ARAMAIO | ARRASATE |
|---------|---------|----------|
| 08:15 | 07:50 | 08:05 |
| | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15* | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:55 | 14:10 |
| 16:20 | 17:05 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 18:45* | 19:00 |
| 19:30 | 20:00 | 20:15 |

OHARRA: Izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA

Disney faktoriaren film bat aukeratu dute gaurko saiorako: *The Incredibles*. Super-heroi bikote baten gaineko istorioa kontatzen du animaziozko film horrek, erretiratuta eta hiru seme-alabekin bizi diren super-heroi batzuen gainekoa, hain justu ere. Brad Bird zinemagileak zuzendutakoa da, *Buscando a Nemo* filmaren egileetariko bat da hura. 123 minutu irauten du. 22:30ean hasiko da.

UMEEN ZINEMA

Oraingo domekan, *Los Lunnis en la Tierra de los Cuentos* telebistako marrazki bizidunen abenturak izango dira zineman. 17:00etan hasiko da filma.

KZGUNEAN, BI ASTE BARRU

Apirilean bi hitzordu zehaztu dituzte KZGunea erabiltzeko. Bata joan den astelehenean izan zen. Bestea, berriz, datorren hilaren 18an izango da. Besteak beste, Interneteko eztabaida-guneak (foroak) aztertuko dituzte astelehen horretan, 16:00etatik 18:00etara. Egunean bertan joatearekin nahikoa da.


Bihar jokatuko du Manex Agirre bertsolariak finala

UBANE MADERA

Bihar jokatuko dute Arabako 2005eko Bertsolari Txapelketako finala. Gasteizen da hitzordua, 17:30ean hasita, Jesus Guridi Auditorioan. Sei bertsolari lehiatuko dira, tartean Manex Agirre herrikidea. Gaur, barikua, zen Granadatik etortzekoa, lehiaketarako. Besteak beste, iazko txapeldunari aurre egin beharko dio Agirrek.

Manex Agirrek aurkari makalak izango ditu biharko saioan: Iñaki Viñaspre, Oihane Perea, Zigor Enbeita, Juan Mari Juaristi eta Asier Otamendi. Edozelan ere, ez

dagoela batere urduri esan digu; Granadan bertso-eskolarik ez dagoenez, ezin izan duela entrenatu kontatu digu, horrenbestez, bestetan baino presio gutxiagorekin joango dela finalera, "asmo handi barik". Kontuak kontu, Legutianoko finalaurrekora ere "entrenatu" barik joan zen Manex Agirre, baina lan polit askoa egin zuen eta finalerako sailkatzea lortu zuen. Ea bada biharko saioan ere antzera gertatzen zaion. Dena dela, gogora ekarri beharra dago Asier Otamendi dela iazko txapelduna, eta askorendako, bera dela aurten ere, faborittoa.



BOTEPRONTOAN/ Kepa Uribarren · Tailugilea eta arotza

"Lan zailak badira, baina estiloak eta teknika ondo ezagutuz gero, edozein gauza egiteko kapaz zara"

Olaetan artista asko izango dira, seguru. Baina horien artean, bada bat egurra lantzen artista dena: Kepa Uribarren. Lantokian hartu gaitu, Ubidea baserrian, beharrea. Izatez arrasatearra da, baina Olaetan bizi da, Olaetan egur-tailuak egiten ditu eta Gasteizen, arotz-lanak (baserrietarako lan bereziak):

Noiz hasi zinen egurra lantzen? Beti gustatu izan zait. Hasi-hasi 17 urterekin hasi nintzen. Gero ebanista ikastera joan nintzen Gasteizera, han egon nintzen hiru urte, eta gero, beka baten bidez, maisu batekin taila ikasten ibili nintzen, taila bakarrik. Tailugile profesional horrekin pare bat urtean ibili nintzen eta hurrengo urteotan, eskultura ikasten, eskulturagile batekin: buztina modelatzea oso inportantea da eskulturak egiteko. Esaterako, egurrezko bustoak egiteko, lehenengo buztinarekin egiten dira eta gero, buztinetik pasatzen da eskaiolara eta hortxe duzu egurrean egiteko modelo. Hori egiten da hiru dimentsioetako tailak direnean; baxuerliebeak



"Eskulturak edo tailak egiteko, %90 intxaurraren egurra erabiltzen dut eta %10 gereziarena"

Liburuak behar dituzte, liburu azokarako

U.M.

Apirilaren 23an, Liburuaren Egunean, bigarren eskuko liburu azoka antolatuko asmoa du Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak. Horretarako liburuak batzen dihardu, baina, kontatu digutenez, oraingoz ez dituzte asko eskuratu.

Dena dela, oraindik ere bada astia liburuak eramateko, apirilaren 22ra arte, hain zuzen. Goizean udaltxerara eraman behar dira; eta

arratsaldean, liburutegira. Edozein motako liburuak hartuko dituzte gazte taldeak, liburu-azokan saltzeko. Lehen esandako moduan, apirilaren 23an izango da hori, herriko plazan. Iragarri digutenez, prezio merkean salduko dituzte liburuok. Batutako dirua, berriz, gobernuz kanpoko erakunde bati emango diote, Angolara eramateko; han, eskolak, jangelak... erakitzeko inbertituko dute diru hori. Eta saltzea lortzen ez dituzten liburuak, espainolezkoak behintzat, Kolonbiara bidaliko dituzte.

LABUR

Maider Unda borrokalaria omenaldiren bat egitea pentsatzen dabil Udala

Osoko bilkura egin zuen joan den eguaztenean udalbatzarrak. Besteak beste, 2005erako aurrekontuari behin betiko onespina eman zioten zinegotziek. Udalbide erakundearekin hitzarmena sinatzea ere onartu zuten, elkarlanean jarduteko, eta 2.400 euroko ekarpena egitea erabaki zuten. Horrez gainera, Maider Unda Espainiako Txapelketa irabazi duela-eta, hari 500 euroko laguntza ematea onartu zuten batzarrean eta horrez gainera, aurrera begira, omenaldiren bat egiteko aukera ere komentatu zuten. Bestelakorik aipatzearen, Danborralde pinudiaren ustiapena hutsik geratu dela-eta, berriro ere jendaurrera aterako dute, beste balorazio batekin.

zuzenean egiten dira. Aurpegiak egiteko, berriz, beti modelatu egin behar da lehenengo. **Profesional moduan lan egiten duzu?** Bai. Urte askoan bakarrik ibili naiz egurra lantzen, autonomo moduan. Orain, tailak lantzen ditut Olaetan eta Gasteizko arotzarekin ere badihardut: baserrietako atea, tarima zabalak... egiten. Merkatuan ez daudenak. Gustura nabil. **Artistikoki, zer lantzen duzu gehien?** Enkargatzen didatena. Armarrri asko egiten ditut, adibidez, azkenaldian eskultura batzuk ere egin ditut... **Egin duzun lanik handiena...**

Armarrri eta ispilu handiak. Eskultura bat ere egin dut, metro eta erdikoa. Karrikatura bat zen, buruhandi moduko bat lorategi batean ipintzeko, eta iturria ere bazen, ahotik ura irteten zitzaion. **Eta egin duzun zailena?** Niretako dagoeneko ez dago gauza zailik. (Barre) **Hori da hori!** Lan zailak egoten dira, bai. Baina taila barruan, behin estiloak eta teknika ondo ezagutzen dituzenean, edozein gauza egiteko kapaz zara. Aurpegiak azaltzen badira zailagoa da... Bustoak dira nahiko konplikatua. Gaitza ez da. Baina zailtasun handiena horrek du. **Eta egitea gustatuko litzaizukeen lanik?** Momentuz ez dut halakorik. Lanean zentratuta nago. Taila bat egiteko burua lantzen dut norbaitek eskatzen badit, bestela enkarguz lan egiten dut. **Lantzeko egurrik egokiena?** Intxaurrea da ona, fruta-arbolak: makatza... Intxaurrek egitura fina izateaz gain, kolore ona du.

"Pinua ez da tailatzeko ona. Baina margotzeko-eta pinua politena da, nire iritziz"

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 8a / 1. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtelai@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

TURISMOA/ Aste Santua da, udarekin batera, turista gehien erakartzen duen urteko sasoa

Aste Santuan, ehun bisita Gatz Museoan, eta herriko landetxeak goraino beteta

XABIER URTZELAI

Debagoieneko herri txikiena bada ere, proportzioan, turismo gehien hartzen duen herria da Leintz Gatzaga. Gatz Museoak, herriaren lasaitasunak, inguru ederrak eta landetxeek ematen duten zerbitzuak erakarrita, kanpotar asko ibili da inguruotan.



Aste Santuko oporraldian, Gatz Museoan lanean izan dira, eta 100 bisitari inguru izan dituzte.

egon diren gehienak, eta baita Gatz Museoan izan direnak ere. Hori esan digu Amaia Olabek: "Gatz Museoan ehun bisita inguru izan dira. Gehienak familiak etorri dira, ume eta guzti. Azpimarratzekoa da nafar asko etorri direla, baina Arabatik eta Bizkaitik ere etorri da jendea. Kanpotarren artean, kataluniarrak

"Hogei txabola izango bagenitu, guztiak egongo liriateke beteta"

eta madrildarrak izan dira museora etorri direnak.

Landetxeen kasuan ere egoera nahiko parekatua izan da. Gehienak Euskal Herrikoak, eta kanpoko turisten artean asko Kataluniatik etorri dira, urtero gertatzen den moduan. Gaztainuzketakoek esan digute hemengo turisten eta kanpotarren arte-

an badagoela aldea: "Euskal Herriko bazterretatik etortzen direnak hemen inguruan ibiltzera etortzen dira, inguruok ezagutzera. Landara joan, herria edota museoa ezagutu, mendi bueltaren bat egin... Aldiz, kanpotik etortzen direnek hiriburuetara joateko aprobetxatzen dute, eguna pasatzera: Donostiara, Bilbora..."

OSOKO BILKURA ATZERATUTA

Gatzagako Udalak hileko azken eguenetan egiten du osoko bilkura, baina joan den astean hainbat lagun oporretan zeudela-eta, batzarra atzeratzea erabaki zuten. Oraingo astera atzeratu zuten batzarra, baina bilkura hori korrika egiteko presazko arrazoirik ez dagoenez, atzeratzea erabaki dute.

SORGINAK TALDEA ZAMORARA

Oporralditik itzuli berri bagaude ere, Sorginak Taldeko emakumeak dagoeneko hasi dira hurrengo bidaiari prestatzen. Zamorara joango dira datorren hilean; maiatzaren 6an, 7an eta 8an. Herri hori bisitatu ez dutelako eta bertako gastronomia bertatik bertara ezagutu gura dutelako antolatuta dute Sorginek bidaiari hori. Ez dira arrazoi makalak.

Goitik behera eraberrituta, zabalik dago berriro ere Gatzaga-gain

X.U.

Hiru hilabete itxita egon eta gero, joan den astean ireki zuten Gatzaga-gain jatetxea. Poliki-poliki hasi dira berriro ere eguneroko lanari erritmoa hartzen. Juan Luisek eta Nereak azaldu digute jatetxean egin dituzten berritasunak.

Gabonak pasatakoan itxi zuten Gatzaga-gain jatetxea, eta egin duen negu gogorrek lanak atzeratu baditu ere, joan den astean ireki zuten jatetxea, guztiz eraberritu-

tuta. Juan Luis Erañak azaldu digu lan horien zergatia: "Argi instalazio berria jarri gura genuen, eta behin lan horiek egin hasita, behar den moduko obra egitera animatu ginen. Sukalde txikia geneukan, eta komunetara joateko jangelatik pasa behar zen. Orain, beste leku batean egin dugu sarrera, jangela eta taberna goitik behera aldatu ditugu, eta sukaldea handitu; txukun geratu da". Horrez gain, jatetxe ondoan dagoen lursaila ere konpondu egin dute: "Hondatezeko makina sartu eta lurra ber-

dindu dugu. Gero, lurra landatu eta mahaiak ipiniko ditugu". Jatetxearen funtzionamendua, berriz, Nerea Erañak azaldu digu: "Astean zehar eguneko menuak ematen ditugu, 9 euroren truke. Orain autobidean lanean dabilen jendea etortzen da. Lan handiena, baina, asteburuetan izaten dugu. Herritik jende asko etortzen da, baita Debagoien osotik ere. Asteburuetan merendero moduan funtzionatzen dugu, ogitartekoak, plater konbinatuak... Baita enkarguz egindako bazkari edo afariak ere".



Juan Luis Eraña taberna berrituan, Esteban Plazaolaren konpainian.

UDA-MONDRA

Aretxabaletarren
eta arrasatearren arteko
derbia Goiena Telebistan

Domekan, apirilaren 10ean
Ibarra futbol zelaian, 16:30ean
21:00etan GOITBn



Ikustekoa!

UDA - MONDRA
Laguntzaileak:
Ezkutu, Haizea, Ibarra jatetxea, Amets, Basati,
Iamai Kafe antzokia, Irati, Iturriotz, Itzala, Monte, Okoretegi.



SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Euskal Herriko Itzulia

Astlehenean, apirilaren 11n
21:30ean eta 23:00etan



Ikustekoa!



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!



Ezkutu
TABERNA

Zatoz gure musikaz gozatzena

Mitarte 9 ARETXABAleta Tel: 943 79 92 01

Dorleta
taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABAleta
Tel.943 79 94 15



Matikua jatetscea

Azata auzoa ARETXABAleta 943 79 16 68

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABAleta. 943 79 20 67



ARLUTZ
TABERNA

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABAleta Tel.: 943 79 32 34

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABAleta
Tel.: 943 79 88 95

HIRUSTA JATETXEA
Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABAleta

H A I Z E A



Kafetegia
eta
taberna

Mitarte z/g • ARETXABAleta
Tel.: 943 79 88 60

IOSU
harategia
taberna



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte1 • Tel.: 943 77 03 08

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIAZKA

IBARRA JATETXEA

- menua
- karta
- plater konbinatuak
- bokatak



Araba ibilbidea 29 • TEL.: 943 79 18 03

Mitartegarai



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

Aretz
taberna



ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABAleta

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71